

Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa: Lan koaderno

Gabriel Rodríguez San Juan
Naiara Arriola Garicano
María del Carmen Sanjuán Artegain



UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

Arreta, pertzepzioa eta motibazioa

Lan koaderno

Gabriel Rodríguez San Juan
Naiara Arriola Garicano
María del Carmen Sanjuán Artegain

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Rodríguez San Juan, Gabriel

Arreta, pertzepzioa eta motibazioa [Recurso electrónico]: Lan koaderno / Gabriel Rodríguez San Juan, Naiara Arriola Garicano, María del Carmen Sanjuán Artegain. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2016]. – 1 recurso en línea : PDF.

Modo de acceso: World Wide Web

ISBN: 978-84-9082-442-9

1. Atención. 2. Percepción. 3. Motivación (Psicología) I. Arriola Garicano, Naiara, coaut. II. Sanjuán Artegain, M.^a del Carmen, coaut.

159.95(0.034)

159.937(0.034)

UPV/EHuko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako lana.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-442-9

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Psikologia kognitiboa eta kutxa beltzaren estrategia	9
Esperimentuak	10
1. esperimentua	10
2. esperimentua	11
3. esperimentua	12
4. esperimentua	13
5. esperimentua	15
6. esperimentua	16
7. esperimentua	18
8. esperimentua	19
9. esperimentua	20
10. esperimentua	21
Pertzepzioa	23
Fenomenoak	24
1. fenomenoa	24
2. fenomenoa	25
3. fenomenoa	25
4. fenomenoa	26
5. fenomenoa	26
Kasuak	26
1. kasua	26
2. kasua	28
3. kasua	28
4. kasua	29
5. kasua	29
6. kasua	29
7. kasua	30
8. kasua	30
9. kasua	31
10. kasua	31
11. kasua	33
12. kasua	33
13. kasua	34
14. kasua	35
15. kasua	35
16. kasua	37
17. kasua	37
18. kasua	38

Arreta	39
Esperimentuak	40
1. esperimentua	40
2. esperimentua	40
3. esperimentua	41
4. esperimentua	42
1.go fenomenoa	42
Kasuak	42
1. kasua	42
2. kasua	43
3. kasua	43
4. kasua	44
5. kasua	44
6. kasua	45
7. kasua	45
8. kasua	45
9. kasua	46
10. kasua	46
11. kasua	47
12. kasua	47
13. kasua	48
14. kasua	48
15. kasua	48
16. kasua	49
17. kasua	49
18. kasua	50
19. kasua	50
20. kasua	51
21. kasua	51
22. kasua	51
23. kasua	52
24. kasua	53
25. kasua	54
26. kasua	55
27. kasua	55
28. kasua	55
29. kasua	56
Motibazioa	57
Kasuak	58
1. kasua	58
2. kasua	58
3. kasua	58
4. kasua	59
5. kasua	60
6. kasua	61
7. kasua	61
8. kasua	62
9. kasua	62
10. kasua	62
11. kasua	63
12. kasua	65

13. kasua	66
14. kasua	67
15. kasua	68
16. kasua	68
17. kasua	69
18. kasua	69
19. kasua	70
20. kasua	70
21. kasua	71
22. kasua	72
23. kasua	73
24. kasua	73
25. kasua	74
26. kasua	74
27. kasua	74
28. kasua	75
29. kasua	76
30. kasua	77
31. kasua	77
Erreferentziak	78

Hitzaurrea

Lan koaderno hau Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Psikologiako Graduko lehen mailako ikasleei zuzenduta dago, bereziki *Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa* irakasgaiko ikasleei. Lan hau «*Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa irakasgaiaren ikasmaterialaren liburuxka*» liburu teorikoa osatzera dator. Irakasgai honetarako material berriak sortu beharra ulertzeko, ezinbestean aipatu behar da zer testuingurutan suertatu den behar hori. Izan ere, Europako Unibertsitate Ere-muaren eraikuntzarekin, 2010. urteaz geroztik, Europako beste unibertsitate guztiak bezala, EHU Bologna izeneko plan horretan sartu zen; goi mailako erregulazio horrek aldaketa ugari ekarri du; besteak beste, irakaskuntza eskaintza berriztatzeke aukera eman zuen, graduen eraketarekin. Horrela, Psikologiako Graduan, historikoki batera ikasten ez ziren hiru prozesu (*Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa*) irakasgai bakar batean uztartu ziren.

Gauzak horrela, hiru prozesu hauek erlazionatuko zituzten erreferentziatzeko eskuliburuak faltan genituen. Beraz, irakasgai honetako irakasle taldekideok (Gabriel Rodríguez, M.^a Carmen Sanjuán eta Naiara Arriola) komenigarri eta beharrezkotzat jo genuen material hau osatzen joatea. Aldi berean, irakasleoi aukera eman zaigu hezkuntza prozesu berri honetan irakasleok irakasgaiaren metodologian eta ebaluazioan hainbat berrikuntza egiteko.

Metodologiari dagokionez, ezinbesteko egin zen metodologia aktiboak erabiltzea. Metodologia aktiboetan oinarritutako irakaskuntzak ikaslea ardatz hartzen du eta diziplinaren berezko gaitasunetan trebatzen du. Estrategia horiek eraikuntza prozesu gisa hartzen dute ikaskuntza, eta ez prozesu pasibo gisa. Sistema berriak ikasleen jarrera aldaketa dakar. Hau da, ikasleak ezagutzaren hartzaile soil izateari uzten dio, eta ikasketa prozesuan jarrera aktibo eta autonomo bat hartzen du.

Testuinguru honetan, beharrezkotzat jo dugu irakasgaiaren landuko diren praktiken eskuliburu bat sortzea, liburua eta metodologia aktiboak bat eginda ikasleari ikasten duen horretan sakontzeko aukera emango baitiogu, irakasleak irakatsitakoan sakondu ordez. Irakaslearen egiteko nagusia, izan ere, ikasten irakastea da.

Lan koaderno honen planteamendua datza ikasleari *Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa* irakasgaiaren lantzen diren eduki teorikoei egokitzen zaien jarduera multzo bat eskaintzean. Helburu zehatza izango da ikasleak lortu dezala irakasgaiaren ezagutzak eguneroko egoera eta fenomenoei aplikatzea. Metodologia honen bidez, ahalbidea eskaintzen zaio ikasleari jasotako informazioaren inguruan azterketa eta hausnarketa egiteko, eta gainera, teoria hutsa baino areago doan edozein egoera erreali aplikatu diezaiotke bere ezagutza. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza/irakaskuntza

metodologian oinarriturik, ikasleari irakasgaiaren alderdi garrantzitsuenen inguruko zenbait arazo, esperimentu, fenomeno, egoera edo kasu azalduko zaizkio (ikus ondoko eduki-taulan).

Ikasleei arazo bakoitzari buruzko galdera bat edo gehiago egingo zaie. Galdera hauek aztertuz, ikasleek hiru prozesu kognitiboen ulermen argiagoa erdietsiko dute. Gainera, adibideak beren esperientzietatik hurbileko egoera praktikoetan oinarritu izana lagungarri gertatuko zaie prozesu horien funtzionamendua ulertzeko.

Bestalde, ikasleek ulertuko dituzte prozesuak ikertzeko metodoak eta ikerketa bultzatzen dituzten arazoak; baita ere garunak ingurunearekin elkarreaginean arazo horiek nola ebatzi behar dituen.

Arazo bakoitzarekin batera, haren erantzun posibleak azalduko zaizkio, eta ikasleak aukerarik egokiena identifikatu eta hautatu beharko du. Galdera bakoitzak, hain zuzen ere, lau erantzun aukera ditu. Galderak ondo erantzuteko, ikasleek psikologia kognitibo, arreta, pertzepzio eta motibazioko prozesuen funtsezko ideiak eta kontzeptuak ezagutu eta ondo ulertu beharko dituzte. Ideiak eta kontzeptuak ulertzeak ikaslea beste testuinguru batzuetara eramaten dute haiek ikasten direneko testuingurutik.

Metodologia honekin, ikasleak ezagutza partziala edo azalekoa soilik eskuratu ordez, ezagutza sakonagoa bereganatuko luke, eta ezagutza mota malgua denez, erraz transferitu lezake eguneroko bizitzako hainbat egoeratar. Eguneroko egoeratan ikasitako ideiak aplikatzen direnean, ikasleek irakasgaiaren —eta, orokorrean, psikologiako edukien— eta bizitza arruntaren arteko erlazioa argi ikusten dute. Bestela esanda, informazioren oroimen sinplea ez da nahikoa izango arazoei erantzun egoki bat emateko; beharrezkoa izango da ikaslearen parte-hartze aktiboa. Edukiak atalka ordenatuak agertzen dira (ikus taula 1).

Edukien taula

Psikologia kognitiboa	Pertzepzioa	Arreta	Motibazioa
10 Esperimentu	5 Fenomeno 18 Kasu	4 Esperimentu Fenomeno 1 29 Kasu	31 Kasu

Taula 1

Galderen izaeraren (esperimentua, fenomeno ala kasua) arabera banaketa eduki (psikologia kognitiboa, pertzepzioa, arreta eta motibazioa) bakoitzean

Psikologia kognitiboa eta kutxa beltzaren estrategia

Psikologia kognitiboak jasotzen dugun informazioaren prozesamenduarekin zerikusia daukaten prozesu kognitiboak aztertzen ditu. Prozesu hauei esker inguruan duguna ulertzen dugu eta ingurune baldintza ezegonkorretara egokitu ahal gara. Halaber, prozesu hauek ahalbidetzen digute gure jokabideak ingurunera modurik onenean moldatzea.

Psikologia kognitiboak aztertzen dituen prozesuen artean, arreta, pertzepzioa eta motibazioa daude. Prozesu horien funtsa fisiologikoa da, eta substratu fisiologiko hau —analisi maila batzuetan— zuzenean azertu daitekeenez, pentsa genezake haren ardura duten zientziek, zientzia fisiologikoez, prozesu kognitiboen azterlana osatzen dutela. Halere, zientzia fisiologikoez, nahiz eta fisiologikoa denaren eta funtzio kognitiboen arteko erlazioak ezartzen dituzten, ez dute esplikatzeko bide dagoen organikoa denetik guk ditugun esperientzietara pasatzeko. Gure pertzepzioak, pentsamenduak, irudiak, oroimenak, motibazioak eta abar ulertzeko, prozesu kognitiboek betetzen dituzten funtzioei begiratu behar zaie.

Funtzio hauek oso konplexuak dira eta elkarri eragiten diote gizakiaren gogamena eta portaera ahalbidetzeko. Hori horrela izanda, prozesuak aztertzeke, funtzioak sorrarazten dituen zer behagarri horrez baliatu beharra dago; jokabideaz, alegia.

Inguru edo baldintza espezifikoko batek jokabide bat eragiten duenean, onartzen da prozesu kognitiboen funtzionamendua bitartekoa dela, informazioa jaso, elaboratu, aldatu, kodifikatu eta azkenean portaera bat ekoizten. Portaera behagarria denez, prozesuok azertzean haren funtzionamenduari buruzko inferentziak egiten ditugu. Hurbiltze horri «kutxa beltza»rena esaten zaio.

Psikologo kognitiboek metodo zientifikoa erabiltzen dute *kutxa beltzaren* barruan gertatzen diren prozesuei buruzko inferentziak egiteko. Metodoak, orokorki, zenbait urrats egiten du; horien artean, pentsamenduaren indukziozko eta dedukziozko ekintzak. Behaketa edo teoria baten aurrean batetik abiatu eta hipotesi bat sortzen da, eta hipotesitik enuntziatu frogagarri eta neurgarriak sortzen dira, gero, egiaztapen esperimentalak egiteko. Esperimentu batean aldagai bat manipulatzeko da (askea), beste aldagai batean (mendeko aldagaian) duen eragina ikusteko. Manipulazioak espero zen eragina sortzen badu, orduan, hipotesia frogatu da. Ebidentzia esperimental horretatik konklusio bat ateratzen da, teoria bat elaboratzera edo aldatzera bideratuko dena.

Hurrengo atalean, 10 egoera esperimental aurkezten dira (10 esperimentu). Galderen xedea da —oro har— psikologia kognitiboa, kutxa beltzaren estrategia, metodo zientifiko esperimentalaren printzipioak eta faseak, aldagaiak, teknikak eta datuen interpretazioa aztertzea. Eduki hauei buruz ikasteko, irakurri Sanjuán, Rodríguez eta Arriolaren liburuxka (2014, 10-16 or.).

ESPERIMENTUAK

1. esperimentua

Informazioaren prozesamenduaren eraginkortasunean (arretan) eta informazio horren errekupeazioaren eraginkortasunean (oroimenean) eragiten duten aldagaiak ikertzen ari gara. Gure hipotesietako bat hau da: espero ez dugun informazioa, edo informazio ez-kongruentea, modu eraginkorragoan prozesatzen da (arreta gehiago eskaintzen zaio) eta arrazagoa da oroimenean kodifikatzen eta errekupeatzen.

Esperimentu bat diseinatu dugu non parte-hartzaile guztiei 11 hitzeko zerrenda bat aurkezten zaien; zerrenda hau, geroago, idatziz erreproduzitzea eskatuko zaie. Parte-hartzaile guztientzat 6. lekuan azaltzen zaien hitza «intxaurra» da. Parte-hartzaileen erdiarentzat (INKONGRUENTE taldearentzat), beste 10 hitzak atletismoarekin erlazionaturiko hitzak dira (atleta, errekorra, lasterketa, zapatilak, olinpiada...). Beste erdiarentzat (KONGRUENTE taldearentzat) beste 10 hitzak fruitu lehorrak dira (almendra, urra, kakahuetea...). Espero ez den informazioa hobe prozesatzen, kodifikatzen eta errekupeatzen bada, «intxaurra» hitza INKONGRUENTE taldean gehiago oroitzeko dela espero da KONGRUENTE taldean baino.

Galderak

1. *Esperimentu honetan «kutxa beltzaren» estrategia erabiltzeak zer dakar?*
 - a) «Intxaurra» hitza gogoratzeko orduan bi baldintzen (KONGRUENTE edo INKONGRUENTE taldekoa izatearen) eta talde bakoitzeko erantzun zuzenen (ala akastunen) arteko erlazio funtzionalak ezartzea dakar lehenik.
 - b) Aldagai askearen eta aldagai menpekoaren mailen arteko erlazio funtzionalak ezartzea dakar.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Esperimentuan frogatu nahi den hipotesia zein da?*
 - a) Espero ez den informazioa hobe prozesatzen, kodifikatzen eta oroitzen dela.
 - b) «Intxaurra» hitza INKONGRUENTE taldean hobe oroitzen dela KONGRUENTE taldean baino.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Esperimentu honetan, iragarpenak zer rol betetzen du?*

- a) Gure hipotesitik ateratako dedukzio logiko bat da.
- b) Erreferentzia zuzena (ez-inferitua) egiten dio ikertzen ari garen prozesu psikologikoari.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. esperimentua

Esperimentu bateko parte-hartzaileei eskatzen zaie ebalua ditzatela 0tik 10era ikasle batzuek (fikziozkoek) azterketa bateko erantzun irekiko galdera batean emandako erantzunak, erantzunen kalitatearen arabera. Bi talde daude. Bi taldeetako parte-hartzaileentzat berdina da azken erantzuna (froga erantzuna). ONAK taldeko parte-hartzaileek froga erantzuna ebaluatu aurretik oso erantzun onak izan dituzte ebaluatzeko. TXARRAK taldeko parte-hartzaileek froga erantzuna ebaluatu aurretik oso erantzun txarrak izan dituzte ebaluatzeko. Behatu dena zera da: TXARRAK taldeko parte-hartzaileek froga erantzuna batez besteko 8,4ko notarekin ebaluatzen dutela, eta ONAK taldeko parte-hartzaileek, aldiz, batez besteko 6,5eko notarekin.

Galderak

1. *Esperimentu honetan, «kutxa beltzaren» estrategiaren erabilpena zertan datza?*

- a) Taldeek jasotako baldintza ezberdinen eta banakako erantzunen aspektu kognitibo zehatzen artean erlazio meridionalak ezartzean datza.
- b) Erantzun beraren (testeko erantzunaren) kalitateari buruzko pertzepzioa talde batean eta bestean hain desberdina izatera nola iris daitekeen esplikazketen prozesu psikologikoak soilik inferitzean datza.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Zein da esperimentu honetako menpeko aldagaia?*

- a) Parte-hartzaileek froga erantzuna ebaluatzeko erabiltzen duten puntuazioa.
- b) Testaren erantzunari dagokion hautemandako kalitatearen indizea.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Esperimentua aztertzean konturatzen gara TXARRAK taldeak ebaluaturiko lehen hiru erantzunen luzera txikiagoa zela ONAK taldeko lehen hiru erantzunen luzera baino. Hau da, taldeak ez ziren soilik aurreko erantzunen kalitatean ezberdintzen; aurreko erantzunen luzera ere ezberdina zen. Horrek beste aukera posible bat irekitzen zuen:*

ONAK taldeko parte-hartzaileek erantzuna okerrago ebaluatu izana, ez kontraste efektu batengandik, baizik eta testaren azken erantzun hau ebaluatzaera iritsitakoan nekaturik eta motibazioa galduta zeudelako. Hipotesi hau frogatzearen, esperimentu berri bat diseinatu zen. Esperimentu berrian kontrolatzen da bi taldeen erantzunak kalitatean bakarrik ezberdintzea, eta ez erantzunaren luzeran. Esperimentu berri hau diseinatu da metodo zientifikoaren honako fase honetan:

- a) Enuntziatu kontrastagarrien erredukzio fasean.
 - b) Fase ez-zientifiko batean, zeren ez baititugu datu enpiriko berriak.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
4. *Aurreko esperimentuko emaitzak kontraste efektu baten ondorio izan badira, orduan esperimentu berri honetan behatu beharko genuke:*
- a) ONAK taldeko parte-hartzaileek erantzuna TXARRAK taldekoek baino hobeto ebaluatzea.
 - b) «Erantzunaren luzera» aldagaiaren eragina kontrolatu eta behin, «aurretiko erantzunen kalitatea» aldagaiak lehen esperimentuan behaturiko norabide berean eragitea menpeko aldagaiari.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. esperimentua

Ikertzen ari gara zer efektuak dituzten ikasitako iragarpenek (prediktibilitateak) arretaren gainean. Esperimentuak hiru fase ditu: 1. fasea, 2. fasea eta froga. 1. fasean, parte-hartzaile guztiek ordenagailuz aurkeztutako diapositiba sekuentzia batzuk jasotzen dituzte. Sekuentzia horietan gezurrezko 16 enpresen izenak agertzen dira zenbait alditan. Enpresa horien izenak agertzen diren bakoitzean, testu batez adierazten da enpresa horien balorazioa burtsan igo ala jaitsi egin den. 1. fasean parte-hartzaileek enpresa bakoitzaren 14 aurkezpen jasotzen dituzte. Enpresen erdiaren akzioek beti izaten dituzte aldaketa berdinak kotizazioan (beti irabazten dute balioa edo galtzen dute balioa); enpresen beste erdiaren akzioak aldien % 50ean balioz igotzen dira (7 aldiz), eta balioa galtzen dute aldien beste % 50ean. 2. fasean, 16 enpresen izenak haien fundatzailearen izenarekin parekatuak agertzen dira. Enpresa bakoitza 8 aldiz parekatzen da dagokion izenarekin (adibidez, Lasa Garraioak → Jose Angel Mediavilla). Azkenik, froga fasean parte-hartzaileei enpresen zerrenda bat aurkezten zaie eta eskatzen zaie enpresa horien fundatzaileen izenak idaztea aldamenean. Eginbehar honetako akats kopurua zenbatzen da burtsan zuten balorazioan igoerak edo irabaziak auresateko, 1. Fasean, enpresen izenak iragarle onak edo txarrak izan ote zirenaren arabera. Antzeko errore-tasa ikusi da auresateko gaitasun ona eta txarra zutenengan.

Galderak

1. *Ikerketa honetan, «kutxa beltzaren estrategia» erlazio funtzionalak ezartzean datza:*
 - a) Estimulu mota (1. fasean, burtsan zuten akzioen balio-aldaketarekiko parekatze konsistentea edo inkonsistentea duten enpresak) eta fundatzailearen izena seinalatzean izandako errore-tasa.
 - b) Enpresen iragarmena eta haien fundatzaileak ikasteko jarri behar den arreta.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidearekin jarraituz, menpeko aldagaia:*
 - a) Parte-hartzaileen erroreak froga fasean.
 - b) Estimulu mota.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Aurreko adibidearekin jarraituz, parte-hartzaileek iragarmen handia duten enpresekin eta iragarmen urria duten enpresekin alderatuta antzeko akats tasa egiten dutenean, esan dezakegu:*
 - a) Aurrean edo iragarpen fasea osatu dugula.
 - b) Estimazio fasea osatu dugula.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. esperientua

Estimulu bat modu errepikakorrean ondorio garrantzitsurik gabe jasotzen dugunean zein arreta aldaketak gertatzen diren baloratu nahi dugu. Parte-hartzaile talde biei diapositiba sekuentzia batzuk aurkezten zaizkie. Diapositiba bakoitzean, fikziozko pertsonai batek —X jaunak— egiten dituen akzioak testuz lauki batean agertzen dira. Testuzko lauki honekin batera, ekintza adierazten duen irudi bat agertzen da. X jaunak egiten dituen ekintzen % 80k ondorio motaren bat du. Ondorio hauek, bi segundo pasa ostean, diapositiba berean agertzen dira testuzko lauki batean. Parte-hartzaile guztiak honako diapositiba hau jasotzen dute: X jaunak telefono dei bat jasotzen du (ekintza) eta berehala zorabiatua sentitzen da (ondorioa). Geroago, parte-hartzaileei galdetzen zaie X jauna zein ekintza egiten ari zen zorabiatua sentitu denean. Parte-hartzaile talde batentzat (TALDE BERRIarentzat) X jaunak deia jasotzen duen aldia lehena eta bakarra da zorabiatua sentitzen denean. Beste taldeko parte-hartzaileentzat (TALDE AZALDUarentzat), berriz, aurretik 12 alditan azaldu zaie deia jasotzen duen diapositiba inolako ondoriorik gabe, eta gero azaldu zaie deia jaso ondoren zorabiatuta sentitzen den diaposi-

tiba. Espero dena zera da, TALDE AZALDUan «dei bat jasotzearen» ekintzak honekiko arreta jaistea. Honela izanik, TALDE AZALDUan akats gehiago agertu behar luke X jauna zorabiatuta sentitu zenean zer egiten ari zen oroitzean.

Galderak

1. *«Kutxa beltzaren» estrategia, zertan ikusten da?*
 - a) Taldeek jasotako baldintza ezberdinen artean eta proposaturiko galderari emandako erantzun egokien/akatsen artean erlazio funtzionalak ezartzea.
 - b) Jasoko diren emaitzak azalduko dituzten arreta mekanismoen inguruan egiazta daitezkeen hipotesiak proposatzea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Zein da erantzun egokia proposaturiko galderarentzat?*
 - a) Aldagai askea da, bakarrik taldearen menpe dagoelako.
 - b) Aldagai askea da ez dagoelako parte-hartzaileen menpe baizik eta taldearen menpe.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Metodo zientifikoaren barruan azterturiko arreta aldaketak frogatzeko parametroak (ekintza motak, azalpen aldiak, lagina...) zehazten ditugun aldia, zein da?*
 - a) Hipotesien formulazio edo zehaztaren fasea da.
 - b) Indukzioa erabiltzen dugun fasea da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Noiz zehazten ditugu esperimentuaren predikzioak edo aurreanak?*
 - a) Enuntziatu egiaztagarrien indukzio fasea amaitzean.
 - b) Indukzioa erabili dugunean.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. esperimntua

Zein arreta aldaketak gertatzen diren baloratu nahi dugu oso antzekoak diren ikusmeneko bi estimulurekin esperientzia izandakoan. Estimulu hauek txori baten (zehazki luma kolore ezberdineko karnaba baten) ilustrazio beretik eratorritako bi irudi dira. Irudietako bati (AX irudiari) lumen zonalde batean orban urdin bat gehitzen zaio eta beste irudiari (BX irudiari) orban hori bat gehitzen zaio. Parte-hartzaile guztiei txandaka aurkezten zaie irudi bakoi-tza (AX eta BX) 20 aldiz. Ondoren, eta aurrez abisurik jaso gabe, AX irudia aurkezten da baina elementu berri bat sartuta: 3 zenbakia agertuko da txoriaren lumetan. TALDE EZBERDINARENtzat 3 zenbakia A elementuaren lekuan agertuko da; TALDE KOMUNARENtzat 3 zenbakia AX eta BX irudietarako berdina zen zonaldean agertuko da. Azken saio hau eta gero, parte-hartzaileei eskatuko zaie azken diapositiban sumatu duten aldaketaren bat edo ezohikoa den elementu bat deskribatzeko. Behatzen dena zera da, 3 zenbakia TALDE EZBERDINAREN parte-hartzaileen % 92k hautematen duela, eta TALDE KOMUNEN % 55ek.

Galderak

1. «Kutxa beltzaren» estrategia, hemen, zertan datza?
 - a) Aldaketaren lokalizazioa (gertatzen bada estimuluaren ezaugarri ezberdintzaileak edo komunak okupatzen zuen lekuan) eta hautemana izatearen asmaketaren artean erlazio funtzionalak ezartzea.
 - b) TALDE EZBERDINEN aldaketa TALDE KOMUNEN baino gehiagotan zergatik detektatzen den esplikatzeko balioko duten hipotesi egiaztagarriak proposatzea, mekanismo psikologikoei (pertzepzioei eta arretazkoei) buruzkoak.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. Zein da erantzun egokia proposaturiko galderarentzat?
 - a) Aldagai askea da, bakarrik taldearen menpe dagoelako.
 - b) Aldagai askea da ez dagoelako parte-hartzaileen menpe baizik eta taldearen menpe.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. Metodo zientifikoaren barruan aztertutako arreta aldaketak frogatzeko parametroak (irudi motak, azalpen aldiak, aldatuko diren estimuluaren ezaugarri ezberdintzaileak, lagina...) zehazten ditugun aldia:
 - a) Hipotesien formulazio edo zehaztapen fasea da.
 - b) Indukzioa erabiltzen dugun fasea da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *TALDE EZBERDIN*ean eta *TALDE KOMUN*ean batez besteko hautemate portzentaje ezberdinak behatzen ditugunean:
- a) Enuntziatu egiaztagarrien dedukzio fasea osatu dugu.
 - b) Egiaztatze fasea osatu dugu.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

6. esperimenterua

Delitu baten larritasuna hautemateko orduan kontraste efektu bat ote dagoen baloratu nahi dugu; hau da, delitu baten larritasunaren pertzepzioan aurrez beste delitu batzuekiko izandako esperientziak eragina ote duen baloratzea. 40 pertsonako lagin bat dugu, eta bi taldeetan banatzen dugu: LARRIAK taldea eta ARINAK taldea. Bi taldeetako parte-hartzaileek 5 delituen deskribapena irakurtzen dituzte, azken delitua indarkeriaz egindako lapurreta bat izanik. Indarkeriaz egindako lapurreta delitu hau baino lehenagoko beste 4 delituak desberdinak ziren bi taldeetan, askoz ere larriagoak izanik LARRIAK taldean ARINAK taldean baino. Bi taldeetako parte-hartzaileei indarkeriaz egindako lapurreta delituaren larritasuna ebaluatzea eskatzen zaie, eta zenbat hilabetetako kartzela zigorra ezarriko luketen adieraz dezatela. Kontraste fenomenoaz dakigunaz, auresaten duguna zera da: indarkeriaz egindako lapurreta delitua LARRIAK taldeko parte-hartzaileek larritasun txikiagoz hautematen dutela ARINAK taldekoek baino.

Galderak

1. *Esperimentu honetan, «Kutxa beltzaren» estrategia, zertan datza?*
 - a) Alde batetik, indarkeriaz egindako lapurreta delituaren eta kartzela zigorraren arteko erlazio funtzionalak ezartzea litzateke.
 - b) Bestalde, oso delitu larriak gertatu ohi diren testuinguru batean delituaren larritasun-pertzepzioa zergatik den handiagoa esplikatze balioko duten hipotesi egiaztagarriak proposatzea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. *Indarkeriaz egindako lapurreta delitua zigortzeko hilabete kopurua:*
 - a) Menpeko aldagaia da.
 - b) Aldagai askea da ez dagoelako beste delitu baten menpe.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Metodo zientifikoaren barruan aztertutako arreta aldaketak frogatzeko parametroak (zenbat delitu, delituen natura, kasuen azalpen mota, lagina...) zehazten ditugun aldia:*

- a) Hipotesien formulazio edo zehaztapen fasea da.
- b) Indukzioa erabiltzen dugun fasea da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Metodo zientifikoaren barruan, indarkeriaz egindako lapurreta delitua LARRIAK taldean ARINAK taldean baino kartzela zigor motzagoarekin baloratuko dutela zehazten dugun aldia:*

- a) Fase enpiriko bat da, predikzio edo auresan zehatzak eta behagarriak ezartzen baititugu.
- b) Dedukzioa erabiltzen dugun fasea da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. *«Kutxa beltzaren» estrategia:*

- a) Lehenengo, bi delituei buruzko azalpenen (LARRIAK eta ARINAK taldeenen) eta indarkeriaz egindako lapurreta deliturako kartzela zigorraren arteko erlazio funtzionalak ezartzea litzateke.
- b) «Fisikoaren» (errealaren) eta «hautemandakoaren» (psikologikoaren) arteko erlazio zuzena azaltzen duten mekanismo pertzeptiboak ikertzeko baliozko estrategia bat da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

6. *Taldea:*

- a) Menpeko aldagaia da, zeren indarkeriaz egindako lapurreta delituari jarriko zaion kartzela zigorra taldearen menpe baitago.
- b) Menpeko aldagai da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. *Metodo zientifikoaren barruan, delitu baten larritasun-pertzepzioan kontraste-efektu bat egon daitekeela frogatzeko erabiliko ditugun parametroak (zenbat delitu, delituen izaera, kasuen azalpen mota, lagina...) zehaztuko ditugun fasea:*

- a) Hipotesien formulazio edo zehaztapen fasea da.
- b) Indukzioa erabiltzen dugun fasea da.

- c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
8. *Metodo zientifikoaren barruan, indarkeriaz egindako lapurreta delitua LARRIAK taldean ARINAK taldean baino kartzela zigor motzagoarekin baloratuko dutela zehazten dugun aldia:*
- a) Fase enpiriko bat da, predikzio edo aurrean zehatzak eta behagarriak ezartzen baititugu.
 - b) Atzeraeraginezko fase bat da, beste fase guztiak atzera begira kontutan hartzea eskatzen baitu.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. esperimendua

Informazioaren prozesamenduaren eraginkortasunean (arretan) eta informazio honen errekupeazioaren eraginkortasunean (oroimenean) eragiten duten aldagaiak ikertzen ari gara. Gure hipotesietako bat hau da: espero ez dugun informazioa, edo informazio ez-kongruentea modu eraginkorragoan prozesatzen da (arreta gehiago eskaintzen zaio) eta arrazagoa da oroimenean kodifikatzen eta errekupeatzen. Esperimendu bat diseinatzen dugu non parte-hartzaile guztiei 11 hitzeko zerrenda bat aurkeztu zaie; zerrenda hau, geroago, idatziz erreproduzitzea eskatuko zaie. Parte-hartzaile guztientzat 6. Lekuan azaltzen zaie hitza «olagarroa» da. Parte-hartzaileen erdiarentzat (INKONGRUENTE taldearentzat), beste 10 hitzak Arkitektura-ekin erlazioaturiko hitzak dira (bobeda, zutabea, plano, e-estruktura...). Beste erdiarentzat (KONGRUENTE taldearentzat) beste 10 hitzak Itsas Biologiarekin erlazioaturiko hitzak dira (atuna, planktona, tiburoia, sepia...). Espero ez den informazioa hobe prozesatzen, kodifikatzen eta errekupeatzen bada, «olagarroa» hitza INKONGRUENTE taldean gehiago oroitu dela espero da KONGRUENTE taldean baino.

Galderak

1. *Esperimendu honetan, «kutxa beltzaren» estrategiaren erabilpenak:*
 - a) «*Olagarroa*» hitza gogoratzeko orduan bi baldintzen (KONGRUENTE edo INKONGRUENTE taldekoa izatearen) eta talde bakoitzeko erantzun zuzenen (ala akastunen) arteko erlazio funtzionalak ezartzea dakar lehenik.
 - b) Gainera adimenaren funtzionamenduarekiko honako hipotesi hau formulatzera eramaten gaitu: «*olagarroa*» hitza inkongruentea den beste informazioarekin (beste eremu semantikoko informazioarekin) azaltzen bada, hobeto prozesatu eta gogoratuko da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Taldea:*

- a) Aldagai askea da.
- b) Menpeko aldagaia da, «*olagarroa*» hitza taldearen arabera hobeto edo okerrago oroitzea espero baita.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Gure hipotesia frogatzeko, metodo zientifikoaren barruan parametroak (zenbat hitza, eremu semantiko zehatzak...) zehazten ditugun aldia:*

- a) Enuntziatu egiaztagarrien indukzio fasea amaitzean.
- b) Egiaztatze fasea da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Metodo zientifikoaren barruan INKONGRUENTE taldeak «olagarroa» hitza KONGRUENTEak baino hobeto oroituko duela aurratsen dugun fasea:*

- a) Fase enpiriko bat da, predikzio edo aurratsen zehatzak eta behagarriak ezartzen baititugu.
- b) Hipotesien formulazio fasea da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

8. esperimientua

Esperimentu bat planteatzen da oliba olio birjinaren pertzepzioan etiketaren efektua (literatura internazionalan labelling effect izendatua). Entsaladetan oliba olio hau ohiz kontsumitzen duten 120 pertsonatako lagina hautatu da eta hiru azpitaldetan banatu dira (n=40). Ondoren oliba olio honen dastatze labur bat egin dute. Nahiz eta parte-hartzaile guztiek dastatu duten oliba olioaren denontzat berdina izan (Jaendik eratorritako mota bat), ANDALUSOL taldeko parte-hartzaileei esan zaie oliba olioaren Andalusol elkarrekin ekoizten duela, Jaendik eratorria eta «pikual» izeneko olibekin elaboratua. PELLEGRINO izeneko taldeari olioaren Pellegrino konpainiak elaboratzen duela eta olibak Calabrian (Italia) hazten direla. Eta azkenik, Kontrol taldeko parte-hartzaileei, probatu berri duten olioaren jatorriaren inguruko inongo informaziorik ez zaie eman. Dastaketa egin ondoren, parte-hartzaile guztiek galdeketa bat bete dute. Eskatu zaie olioaren zaporea eta aroma zenbateraino gustatu zaien baloratzea 0-tik (oso gutxi) 10-era (asko), eta zenbat ordainduko luketen 500 ml-ko botila baten truke.

Galderak

1. *Esperimentu honetako aldagai askeak:*

- a) Parte-hartzaileen balorazioa (zaporearen eta usainaren gustua, eta zer prezio ordaintzeko prest dauden) ikertu nahi den etiketaren efektuaren kausa izanik.
- b) Parte-hartzaileen balorazioa neurtzen duen zenbakizko eskala 0tik 10era.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Esperimentu honetako menpeko aldagaia:*

- a) Etiketaren efektua, top-down prozesuen eraginaren (hau da, oliba olioaren jatorria eta kalitatea aurrez ezagutzearen) isuri (sesgo) gisara definitua.
- b) Etiketaren efektua, bottom-up prozesuen eraginaren (hau da, oliba olioaren jatorria eta kalitatea aurrez ezagutzearen) isuri (sesgo) gisara definitua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Kutxa beltzaren estrategiaren erabilpena esperimentu honetan:*

- a) Talde bakoitzeko parte-hartzaileek jasotako informazio ezberdinen eta haiek bi faktoreri buruz –olioaren zaporea eta usaina zenbat gustatu zaien eta zenbat ordaintzeko prest leudekeenari buruz– egindako zenbakizko estimazioen arteko erlazio funtzionala ezartzea dakar lehenik.
- b) Metodo zientifikoa erabili gabe zenbakizko emaitza objektiboak jasotzea ziurtatzen du.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

9. esperimentua

10 urteko haurrengan bottom-up arreta kontrola baloratzeko ikerketa batean lanean ari gara. Horretarako honako esperimentua diseinatu dugu. Ordenagailu pantaila batean, banan bana, 40 irudi aurkezten zaizkie, irudi hauek kolore eta tamaina ezberdineko laukizuzenak izanik. Irudiak aurkeztu aurretik, haurrei esango diegu beraien lana izango dela laukizuzenetan zirkulu gorri bana aurkitzea, ordenagailuko arratoiarekin zirkuluaren gainean jartzea eta arratoiaren botoia sakatzea. 40 irudietatik 8tan, koloretako laukizuzenez eta zirkulu gorriaz gain, irudian kolore biziko marrazki bizidun bat gehitu dugu. 40 saioetan haurrek zirkulu gorriaren gainean arratoiaren botoia sakatzeko behar duten denbora neurtuko dute. Haurrek batz bestea 3,06 segundo beharko dute zirkulu gorriarengan erantzuten marrazki biziduna ez dagoen saioetan eta 4,85 segundo batez beste marrazki biziduna dagoen kasuan.

Galderak

1. *«Kutxa beltzaren» estrategia erabiltzeak adibide honetan zera adierazten du:*
 - a) Saio mota ezberdinen artean (irudiak marrazki bizidun pertsonaiarekin ala gabe), eta zirkulu gorria aurkitzen behar duten denboraren artean erlazio funtzionalak ezartzean datza.
 - b) Egiazta daitekeen arretaren funtzionamendua esplikatzeko hipotesiak proposatzea ekartzen du; hipotesi hauek esplikatuko lukete zergatik behar den denbora luzeagoa zirkulu gorria bilatzeko marrazki bizidunak dituen irudian.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Adibide honetako esperimentuan saio bakoitzean zirkulu gorria bilatzeko behar duten denbora:*
 - a) Aldagai askea da.
 - b) Eginbeharrak irauten duen bitartean martxan jartzen diren arreta prozesuen seinaleztat hartzen da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Adibide honetako esperimentuan, bottom-up arreta-kontrola:*
 - a) Zirkulu gorria bilatzeak berekin duen informazio-hautaketa.
 - b) Arreta marrazki bizidunetan jartzeak berekin duen informazio-hautaketa (nahiz eta egin-beharrak ez den hori, zirkulu gorria aurkitzea baizik).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Adibide honetako esperimentuan, top-down arreta kontrola:*
 - a) Zirkulu gorria bilatzeak berekin duen informazio-hautaketa.
 - b) Arreta marrazki bizidunetan jartzeak berekin duen informazio-hautaketa (nahiz eta egin-beharrak ez den hori, zirkulu gorria aurkitzea baizik).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

10. esperimendua

Ikertzen ari gara zer efektuak dituzten ikasitako iragarpenek (prediktibilitateak) arretaren gainean. Esperimendua hiru fase ditu: 1. fasea, 2. fasea eta froga. 1. fasean, parte-hartzaile

guztiek ordenagailuz aurkeztutako diapositiba sekuentzia batzuk jasotzen dituzte. Sekuentzia honetan 16 hegazkin-konpainiaren izenak agertzen dira zenbait alditan. Hegazkin-konpainia hauen izenak agertzen diren bakoitzean Barajaseko (Madrid) aireportuko zein pista lurrartuko duten adierazten da. 1. fasean parte-hartzaileek hegazkin-konpainia bakoitzaren 14 aurkezpen jasotzen dituzte. Hegazkin-konpainien erdiak beti pista berdinean hartzen du lurra (adibidez, Iberiak → 4. pista); hegazkin-konpainien beste erdiak % 50etan pista batean (adibidez, Air Francek → 3. pista) (7 aldiz) eta aldien beste % 50etan beste pista batean (adibidez, Air Francek → 7. pista). 2. fasean, 16 hegazkin-konpainien izenak beren fundazio-urtearekin parekatuak agertzen dira. Hegazkin-konpainia bakoitza 8 aldiz parekatzen da dagokion urtearekin (adibidez, Iberia → 1965). Azkenik, froga fasean parte-hartzaileei hegazkin-konpainien zerrenda bat aurkezten zaie eta eskatzen zaie hegazkin-konpainia hauen fundazio urtea idaztea aldamenean. Adierazitako urtean izandako akats-kopurua zenbatzen da, konpainiak beren lurrartze-pisten iragarle onak ala txarrak ziren kontuan hartuta. Antzeko errore-tasa ikusi da aurreateko gaitasun ona eta txarra zutenengan.

Galderak

1. «Kutxa beltzaren» estrategia erabiltzeak berekin dakar, alde batetik, honako hauen arteko erlazio funtzionalak ezartzea:
 - a) Hegazkin-konpainien balio iragarlearen pertzepzioa (1. fasean ikasitakoaren ondorio: lurrartze-pistaren iragarle onak/txarrak ote diren) eta frogan fundazio urtea adieraztean errore-tasa.
 - b) Hegazkin-konpainien balio iragarlea 1. fasean (lurrartze-pistaren iragarle onak/txarrak) eta hegazkin-konpainien fundazio-urtea ikasteko arreta.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. Aurreko galderako adibidearekin jarraituz:
 - a) Menpeko aldagaia dira parte-hartzaileek hegazkin-konpainien fundazio-urtea adieraztean egindako akatsak.
 - b) Aldagai askea da hegazkin-konpainiek 1. Fasean hartutako balio iragarlea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
3. Aurreko galderako adibidearekin jarraituz, parte-hartzaileek hegazkin-konpainia iragarle onekin nahiz txarrekin antzeko akats-kopurua egiten dutela egiaztatzen dugunean:
 - a) Egiaztatze fasea osatu dugu.
 - b) Enuntziatu egiaztagarrien dedukzio fasea osatu dugu.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

Pertzepzioa

Pertzepzioa zentzumenetatik datorren informazioaz daukagun esperientzia kontzientea da. Nahiz eta oso sinplea dirudien, pertzepzioa oso prozesu konplexuaren emaitza da. Estimuluen prozesamenduan parte hartzen dute, alde batetik, informazio sentsorialak —hau da, ingurunetik zentzumenek hautematen dituzten seinaleek—, eta bestetik, une horretarako garrantzitsua den eta garunean jadanik metatuta daukagun informazioak. Hori dela eta, bi prozesamendu mota desberdinez hitz egiten da, goranzko prozesamendua eta beheranzko prozesamendua, datuetatik eta ezagutzatik datozenak, hurrenez hurren.

Goranzko prozesamendua pertzepzioaren prozesuaren hasiera da. Inguruan dagoen estimulazio osotik zenbait estimulu iritsiko dira gure zentzumenetara. Hori horrela da gure zentzumenak, fisiologikoki, estimulazio mota bat jasotzeko mugatuak direlako. Psikofisiologiak zenbait metodo proposatu ditu estimulu-dimentsio bakoitzeko atalaseak neurtzeko. Metodo hauetatik, TDS teoria garatu zen; metodo honek atalaseak neurtzen ditu faktore kognitiboak kontuan hartuta.


Behin garunak estimulazioa eskuratuz gero, datuen analisia hasten da. Lehenengo pauso batean, estimuluak beren osagaiez banatzen dira ezaugarri sinpleen analisia egiteko. Informazio horri zentzua emateko, osagarri hauen informazioa antolatzen da, eta beheranzko prozesamendurako atea irekitzen da. Datuekin daukagun ezagutza aktibatu eta gehitzen da, eta printzipio batzuk jarraituz, informazioa bildu eta interpretatu egiten da.

Prozesamendu orokorraren gaineratik, ekonomia kognitiboaren printzipioa nagusia da. Printzipio honengatik, askotan, garunak errealitatea antolatzeko aztergarria den informazioan baka-rrik oinarritzen da errealitatea antolatzeko. Estrategia honek heuristikoak erabiltzeak ekartzen du. Heuristikoak bidexkak dira, gehienetan pertzepzio fidagarriak izatera eramaten dituenak. Pertzepzioa ez da munduaren irudikapen perfektua, bazik eta erabilgarria zaigun irudikapena. Kanpoko munduaz daukagun pertzepzioa munduari buruzko inferentzia da, azken finean.

Atal honetan, 5 fenomeno, 1 kasu eta 17 egoera aurkezten dira. Galderen aztergaiak dira, besteak beste, estimuluen hautematea eta estimuluen atalaseak aurkitzeko metodoak, goranzko prozesamendua, beheranzko prozesamendua eta heuristikoak. Eduki hauei buruz ikasteko, irakurri Sanjuán, Rodríguez eta Arriolaren liburuxka (2014, 20-90 or.).

FENOMENOAK

1. fenomenoa



Irudi hau begiratzean bi laukizuzen gris daudela hauteman duzu ziurrenik. Ezkerrekoa barra edo zutabe beltz batzuen gainean dagoela dirudi eta eskuinekoa hauen azpian dagoela dirudi. Gainera, ezkerreko laukizuzena eskuinekoa baino argiagoa dela dirudi. Bada, haute-mandako ezaugarri hauek ez datoz bat errealitatearekin. Laukizuzen gisa hauteman dituzunak errealitatean txandakaturik azaldutako kolore ezberdineko zutabeak dira (grisak eta zuriak ezkerreko kasuan eta grisak eta beltzak eskuineko kasuan). Gainera, ezkerreko laukizuzenaren zutabe grisak eskuineko laukizuzenarenak baino argiago iruditu arren, errealitatean kolore berdinekoak dira.

Galderak

1. *Ilusio pertzeptibo honek adierazten du:*

- Pertzeptioa berehalako prozesu bat dela.
- badirela prozesu batzuk (fisiologikoak, psikologikoak...) errealitatearen eta gure pertzeptioaren artean bitartekari lana egiten dutenak.
- A eta b zuzenak dira.
- A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Ilusio pertzeptibo honek adierazten du:*

- Ez gabela gure errealitateaz kontziente, baizik eta gure pertzeptioez.
- Prozesu batzuk daudela (fisiologikoak, psikologikoak...) errealitatearen eta gure pertzeptioaren artean bitartekari lana egiten dutela.
- A eta b zuzenak dira.
- A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Aurreko irudiarekin loturik, Franz Beckenbauer-ek proposatzen du bi laukizuzen hautematen ditugunean...*

- Bi laukizuzenen presentzia ari gabela ondorioztatzen (inferitzen) inkontzienteki.

- b) *Iragazki zurrunaren* eredia erabiltzen ari garela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. fenomenoa

Teleskopio bat erabiliz, begi bistan ikusi ez daitezkeen zeruko hainbat gorputz ikusteko gai naiz.

Galdera


- 1. *Adibide honek adierazten du:*
 - a) Nire aparatu sentsorialek errealitateri buruz daukadan pertzepzioa mugatu dezaketela.
 - b) Zeruko gorputz hauek ikustea funtsezkoa izan dela eta badela gure espeziearen bizi irauterako.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. fenomenoa

Irudi honetan, bi laukiak kolore berdinekoak dira benetan, nahiz eta tonu gris desberdinekoak direla iruditu (ezkerrekoa ilunagoa).

Galdera

- 1. *Ikusmenezko demostrazio honek adierazten du:*



- a) Hurbileko eta urruneko estimuluaren arteko Kontraste Efektua.
- b) Tonu grisarekiko sentsibilizazio efektu bat.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. fenomenoa

Mikroskopio baten bidez begiratzen dut eta begien bistaz ikusi ezin ditudan partikulak eta formak ikusten ditut.

Galderak

1. *Adibide honek adierazten du:*

- a) Errealitatea interpretatzeko orduan top-down prozesuak berebiziko garrantzia dutela.
- b) Gure aparatu sensorialak pertzepzioak mugatzen dituela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibideak hau ere adierazten du:*

- a) Ez garela gure errealitateaz guztiz kontziente, baizik eta gure sentazioez.
- b) Ez garela kontziente errealitateaz, gure aparatu sensorialen eta errealitate horren arteko elkarreraginaren emaitzazko hurbileko estimuluez baizik.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. fenomenoa

Gai naiz zapore ezberdintasuna hautemateko saldari koilarakada bat gatz bota ondoren beste bat botatzen diodanean. Aldiz, ez naiz gai 4 koilarakada bota ostean beste bat botatzen dudanean.

Galdera

Emaitza hauek:

- a) Weber-en Legearen aldekoa da.
- b) Weber-en Legearen kontrakoa da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

KASUAK

1. kasua

Bodega batera joaten naiz, ardoez asko dakien lagun batek fabore bat egin didanez kalitate handiko ardo bat oparitu nahi diodalako. Dendariak bi ardo ezberdin proposatzen dizkit, batek

13 euro balio ditu eta besteak 19. Nik ardoez ez dudanez asko ulertzen, produktu garestienak kalitate handiagokoak direla pentsatuta, ardo garestiena erostea erabakitzen dut.

Galderak

1. *Eredu honek honako hau adierazten du:*

- a) Gure prozesu pertzeptiboek irtenbide heuristikoak (hau da, ez-inteligenteak) erabiltzen dituztela egoera jakin batek ematen digun informazioa sinplifikatzeko.
- b) Gure prozesu pertzeptiboek irtenbide heuristikoak (hau da, ez-inteligenteak) erabiltzen dituztela gure inguruko gertaeren eta estimuluen anbiguotasuna murrizteko.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidea azaltzeko, Seinaleen Detekzioaren Teoriak (SDT) proposaturiko mekanismoa aplikatu ditzakegu. Seinalea, adibide honetan, kalitate handiko ardoa dela onartu eta ardo garestiena erostea erabaki dut:*

- a) Zeinua agertzeko probabilitatea aurrez (a priori) txikiagoa delako 13 euroko botilaren kasuan 19 eurokoarenean baino.
- b) Seinalearen (13 euro) eta zarataren (19 euro) batura seinalearen bikoitza baino gehiago delako.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Aurreko adibidea azaltzeko, Seinaleen Detekzioaren Teoriak (SDT) proposaturiko mekanismoa aplikatu ditzakegu. Seinalea, adibide honetan, kalitate handiko ardoa dela onartu eta ardo garestiena erostea erabaki dut:*

- a) Zeinua agertzeko probabilitatea aurrez (a priori) txikiagoa delako 13 euroko botilaren kasuan 19 eurokoarenean baino.
- b) Seinalearen eta zarataren ezberdintasuna altuagoa izango delako 13 euroko botilaren kasuan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Aurreko adibidearekin jarraituz, botila batengatik 19 euro ordaintzean, dendariak euro 1 deskontatzen didala esan dit. Weber-en legearen baitan, deskontu hau hautemango dut:*

- a) Handiagotzat 10 euro kostatzen den produktu batekin alderatuz.
- b) 23 euro kostatzen duen produktu batean hautemandako deskontu bera.

- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. kasua

A ikasleak 48ko puntuazioa lortu du (100 puntutik) irakasgai bateko lehen azterketan eta 50 (100 puntutik) bigarren azterketan. B ikasleak 78 lehenengoan eta 88 bigarreanean. Nota hauek ikustean, irakasleak A ikasleak B ikasleak baino gehiago hobetu duela hautematen du.

Galdera

- a) Weber-en legearekin bat dator.
- b) Atalase absolutua aldakorra dela adierazten du.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak

3. kasua

**Talde lan bat egiten ari gara eta badakit taldeko lankide bat atzo bere urtebetetzea ospatzen aritu zela berandu arte. Lanerako bere ekarpena berrikusi dut eta akats larri bat hauteman dudala uste dut. Baina berarekin erreparatzean konturatzen naiz ez dagoela erro-
rerik eta bere ekarpena egokia zela.**

Galderak

1. *Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera, egoera horretan lankidearen akatsa hautematean izan dudan nahastea, zer da?*
 - a) Seinale ez egokia.
 - b) Omisio faltsu bat.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. *Aurreko adibidearekin jarraituz, Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera egoera honetan nire nahastea nire lankidearen akatsa hautematean honengatik gertatu zen:*
 - a) Seinalearen gertaeraren nire aurre-ezagupen (a priori) probabilitatea baxua zelako.
 - b) Nire aukeraketa irizpidea lasaia (laxoa) zen, oso lan garrantzitsua zelako.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. kasua

Jonek 33 urte ditu eta haren iloba Loreak 4. Jon iloba eskutik helduta sartu da jostailu denda batean. Dendaria Joni zuzentzen zaio Lorearen aita izango balitz bezala.

Galdera

1. *Dendariaren akatsak adierazten du:*

- a) Gure pertzepzioak top-down prozesuen baitan gertatzen direla, hein batean behintzat.
- b) Gure prozesu pertzeptiboek irtenbide heuristikoak erabiltzen dituztela gertaeraren eta inguratzen gaituzten estimuluen arteko anbiguotasuna handitzeko.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. kasua

Seinala ezazu *egokia* den aukera. Bi lagun —bat filateliazalea eta bestea ez—, lehenaren bildumako seilu bati begira daude.

Galdera

1. *Adibide honetan, bi pertsonak:*

- a) Gauza bera hautematen dute biak seilu berari begiratzen baitiote.
- b) Pertzepzio ezberdinak dituzte. Bereziki, filateliazalearen kasuan, top-down prozesuen eraginagatik informazio sensorialaren transdukzioan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

6. kasua

Lehenago batean kafetegi batean nengoen eta institutuko lagun bat ikusi nuela iruditu zitzaidan. Baina, momentuan konturatu nintzen ez zela bera.

Galdera

1. *Adibide honek adierazten du:*

- a) Pertzepzioa ez dela prozesu inteligentea.

- b) Prozesu pertzeptiboak irtenbide heuristikoak eskaintzen dizkigula estimulu anbiguen aurrean.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. kasua

Peiok, komikiak gustuko dituenak, bere lagun Gorka konbentzitu du «Bengatzaileak» pelikula ikustera elkarrekin joateko. Pelikula bukatutakoan, Gorkak eskerrak eman dizkio Peiori zinera joatearen ideiatatik pelikula asko gustatu baitzaio. Peiok, aldiz, esaten dio pelikula ez zaiola batere gustatu; oinarriturik dagoen komikiaren oso egokitzapen txarra dela.

Galdera

Adibide honek zera adierazten du.

- a) Top-down (goitik beherako) prozesuek pertzepzioan duten eragina.
- b) Top-down (goitik beherako) prozesuek arretan duten eragina.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

8. kasua

Beñatek —arte garaikideko kritikoa bera— bere lagun Aritzi eskatu dio pintura abstraktuaren talentu gazte baten erakusketara laguntzeko. Bertan direla, koadro baten aurrean geratzen dira; koadroak hondo beltz baten gainean marra zuriak eta haien barnean beltzak zituen elipse bat erakusten zuen. Koadroa ikustean, Aritzek esan du ez duela inoiz ikusi hori bezain gaizki margoturiko beste zebrarik. Beñatek erantzun dio koadroan ez dagoela inongo zebrarik, koadroaren izenburua «Madrid» dela eta kultura nahasketa irudikatzen duela.

Galderak

1. *Aritzen komentarioak honako hau adierazten du:*

- a) Heuristikoen erabilera prozesu pertzeptiboaren mekanismo inteligente bat dela.
- b) Gure sistema pertzeptiboak ez dituela beti irtenbide heuristikoak erabiltzen.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Artistaren obra guztiak ikusi ondoren, Aritzek Beñati esaten dio ez dakiela jendeak nola baloratzen dituen hainbeste koadro horiek. Onartzen du pinturaz ez dakiela ezer, baina uste du ez duela inongo meriturik zentzu gabeko gauzak margotzeak, paisaiak edo benetakoak diruditen erretratuak margotu beharrean. Beñatek, aldiz, esaten dio koadroek hunkitu egin dutela, eta artistaren kritika positiboa egingo duela bere aldizkarian.*

- a) Top-down (goitik beherako) prozesuek pertzepzioan duten eragina.
- b) Top-down (goitik beherako) prozesuek arretan duten eragina.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

9. kasua

X jaunak aurrera eramandako bahiketa honela amaitu zen: agintariek haren eskaerei amore ez ematea erabaki zuten, eta poliziak kafetegian sartzeko erabakia hartu zuen. Sartzean, polizietako batek sumatu zuen X jaunak armaz apuntatzen ziola bahitu bati, eta oihu egiten ziola, tiro eman aurretik (baina X jaunak, benetan, kafetegitik korrika ateratzeko oihukatzen zion bahituari). Egoera horretan, poliziak X jauna tirokatu zuen eta bertan hil zen.

Galderak

1. *Seinaleen Teoriaren Detekzioaren arabera, poliziak hauteman zuen (akatsa izanik) X jaunak tirokatu egingo zuela bahituta zeukan pertsona:*
 - a) Maniatzen zuen probabilitatea *apriorizko* seinalearen gertaera handia zelako (hau da, X jauna bahituriko pertsona hiltzen saiatzea).
 - b) Omisioaren kostua (hau da, X jauna bahituriko pertsona hiltzen saiatuko zela) altuagoa zen alarma faltsu bat baino (X jaunari erantzutea bahitutakoa hiltzeko asmoa izango balu bezala, errealitatean hau horrela ez zenean).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

10. kasua

X jaunak kargu publiko bat du duela 3 urtez geroztik. Duela bi urte obren lehiaketak bere lagun bati ematen hasi zen. Nahiz eta haren enpresak ez dituen lehiaketaren oinarriak betetzen, X jaunak emaitzak aldatzeko behar diren kudeaketak egiten ditu. Horren truke, organismo publikoak enpresari obra egiteagatik ordainduko dionaren %3 lortzen du.

Galderak

1. *X jaunak delitu hau sarritan errepikatzen duenez, zer deduzitu daiteke?*
 - a) X jauna ez da kontziente portaera honek ekar diezazkiokeen ondorio negatiboetz.
 - b) X jaunaren hautematea zera da, bere delituen ondorio posible guztiak positiboak direla (hau da, bere portaerak, zentzu ezberdinetan, galerak baino onura gehiago ekartzen dizkiola).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *X jaunak errepikatu dituen iruzurrak direla eta, 2 miloi euro ditu gordeak paradisu fiskaletan. Hautematen du azken iruzurretako lehiaketetan jasotzen duen dirua txikiagoa dela orain bere dirutza duela bi urte egiten hasi zenean baino. Baina, hau ez da errealitatean gertatzen dena, ingesaturiko kantitateak oso antzekoak izan baitira beti. X jaunaren pertzepzioa adibide honetan:*
 - a) Weber legeari dagokio.
 - b) Diru kantitateen atalase diferentziala desberdina dela adierazten du.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Egun batean, bere alderdi politikoko kide batek esaten dio poliziak obren lehiaketa publikoen iruzurra argitara eramango duenaren zurrumurrua dagoela. Gau horretan X jauna asalaturik esnatu da. Bizilagunaren kotxeko alarma jotzen ari da eta berak polizien sirenak hautematen ditu bere etxera hurbiltzen. Seinaleen Detekzioaren Teoriaren arabera, alarma faltsu hau eman da:*
 - a) X jaunak polizien sirenaren agertzearen probabilitateari buruz duen aurre ezagutzaren al-daketagatik.
 - b) X jaunaren hautematea zera da, polizien kotxeko sirenaren omisioak kostea txikiagoa dela alarma faltsua baino.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Ustelkeria kasuan inplikaturiko enpresariak X jaunaren atxiloketa ikusi zuenean telebistan, beldurra sentitu zuen. X jaunaren semeak albiste bera ikusi zuenean, haserrea eta lotsa sentitu zuen. Bi pertsona hauek, estimulu edo gertaera berdinen aurrean, emozio desberdinekin erreakzionatzeak adierazten du:*
 - a) Bottom-up prozesuen ekarpena prozesu pertzeptiboan.
 - b) Emozioak berehala gertatzen direla (hau da, beste inongo prozesu edo mekanismo kognitiboren bitartekaritzarik gabe).

c) A eta b zuzenak dira.

d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. *X Jauna azterketa egiten ari zen bitartean, Y Jaunak ahapeka deitu zion galdera baten erantzuna jakin nahian. Azterketatik ateratzean, X Jauna harrিতuta geratu zen Y Jaunak haserrea adierazi zionean. Benetan, X Jaunak ez zuen Y Jauna entzun. Adibide hau azaldu daiteke:*

a) Atalase absolutuaren kontzeptuarekin.

b) Broadbent eta Treismanek proposaturiko arreta-iragazkiaren kontzeptuekin.

c) A eta b zuzenak dira.

d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

11. kasua

Ontzi garbigailuak saltzen dituen enpresa batek bere mozkina handitu nahi du produktuaren kantitatea gutxituz eta, aldi berean, ohiko prezioari eutsiz. Estrategia horrek produktuaren irudian eta multinazionalen eragin negatiboa izan ez dezan, aditu talde bat kontratatu dute. Eskatzen diete zenbateko kantitatea kendu dezaketen produktutik murrizketa ez hautemateko.

Galdera

1. *Eskaera honek suposatuko du adituek:*

a) Sentsazioaren (bottom-up informazioaren fluxua) eta pertzepzioaren (top-down informazioaren fluxua) diferentzia kalkulatzeko.

b) Estimuluaren (ontzi garbigailua) atalase absolutua kalkulatzeko bi zentzumen dimentsioetan: ikusmeneko (kontsumitzaileak produktua dendan ikusten duenean) eta ukimenezkoa (etxean erabiltzen duenean).

c) A eta b zuzenak dira.

d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

12. kasua

Psikologo baten eta paziente baten arteko elkarrizketan, azken honek adierazten dio bere osabari eta anaiari eskizofrenia diagnostikoa egin dietela. Psikologoak badaki zenbait ikerketek diotela eskizofreniak familia bereko gizonezko kideen artean osagai hereditario handia duela. Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera, posible izan liteke, elkarrizketa honen ondoren psikologoak bere pazientearen portaerak eskizofrenia koadro baten sintomatizat interpretatzea.

Galderak

1. *Hau gertatuko da:*

- a) Psikologoak seinalea (hau da, eskizofreniarekin erlazionaturiko sintoma) gertatzeko apriorizko probabilitatea handitzea eragin duen informazio bat jaso duelako.
- b) Zeren, kasu honetan, denak adierazten du omisioaren kostua alarma faltsuaren kostua baino baxuagoa dela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

13. kasua

Nire alabaren kopeta ukituz gai naiz erraz konturatzeko bere gorputzeko temperatura 36 °C-tik 37 °C-ra igotzen dela. Baina, kostatzen zait konturatzeko sukar erdi altutik (38 °C) sukar altura (39 °C) pasatzen denean.

Galderak

1. *Adibide hau:*

- a) Weber-en legera egokitzen da.
- b) Weberren legearen kontrakoa da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidearekin jarraituz, egun batean Jon atarian bere bizilagun batekin topatzen da eta hitz egiten hasten dira. Bizilagunarekin hitz egiten jarraitzearen laugarren pisuraino laguntzen dio bizilagunari. Gero eskailerak igotzen ditu laugarren pisutik bosgarren pisura. Weberren legearen arabera, Jonen hautemango du eskaloien kantitatea kasu honetan laugarren pisutik bosgarrenera:*

- a) Normalean lehenengo pisutik bigarrenera hautematen duena baino *handiagoa*.
- b) Normalean lehenengo pisutik bigarrenera hautematen duena baino *txikiagoa*.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Jon bere bizilagunarekin topatu denean atarian, honek auzoan lapurretak gertatzen ari zirela kontatu dio. Hurrengo egunean, Jon lanetik bueltatzean ezezagun bat ikusi du sarraila manipulatzeko. Berehala telefonoz deitu dio poliziarri eta salatu du lapur bat dabilela bere atariko sarraila bortxatu nahian Azkenean, ustezko lapurra sarrailagile*

bat zen, komunitateko lehendakariak atariko sarraila zaharra aldatzeko eskatu baitzion. Adibide honek adierazten du:

- a) Gure sistema pertzeptiboak inguratzen gaituzten estimuluak interpretatzerakoan irtenbide heuristikoak erabiltzen dituztela (hau da, ez-inteligenteak) .
- b) Top-down prozesuek gure pertzepzioak determinatzen dituztela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Aurreko adibidearekin jarraituz, eta Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) testuinguru kontzeptualaren haritik, Jonek lapurra hautematerakoan adierazi zuen isuria.*

- a) Seinalearen okurrentziaren apriorizko ezagutzaren baitan dago.
- b) Bere aukeraketa irizpidearen baitan dago: hautemango du seinalea (lapur bat) presente dagoela omisioaren kostua txikiagoa delako alarma faltsuaren kostua baino.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

14. kasua

Erantzun egokia aukeratu. Enpresari bat Londresen enpresako delegatu lanpostu bat betetzeko hautagai bat bilatzen ari da. Jaso dituen curriculum guztiak erreparatuz, bilatzen ari den profil profesionala duen baten bat hautematen saiatzen ari da. Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera, enpresariak ez du oso erabaki irizpide zorrotza izango, eta horrek hautagaietan bilatzen ari den profila aurkitzera okertuko edo sesgatuko du.

Galdera

1. *Honen arrazoia da:*

- a) Omisioaren kostua alarma faltsuaren kostua baino handiagoa dela pentsatzen duelako.
- b) Alarma faltsuaren kostua omisioaren kostua baino handiagoa dela pentsatzen duelako.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

15. kasua

Isabel abeslariaren epaiketean bere lagun batek deklaratu zuen. Deklarazioan lagun horrek aditzera eman zuen bere kontu korronteetan izandako desfaseen arduraduna haren bikotekide Julian zela, garai horretan Villarroako alkatea. Julianen nortasuna deskribatzean, abeslariaren lagunak esan zuen «ematen zuen zenbat eta diru gehiago eduki, orduan eta gehiago irabazi behar zuela».

Galderak

1. Adibide hau/honetan:

- a) Weber-en Legearen aldekoa da, hasierako magnitudea zenbat eta handiagoa izan (Julianek zuen dirua) handiagoa da magnitudearen handitzea (irabazi ekonomikoa) hura hauteman ahal izateko.
- b) Atalase diferentziala —kasu honetan, irabazi ekonomiko baten hautematea—, ez da alda-korra.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Epailea kontzentratua zegoen Isabelen kontu korrontean hauteman ziren irregulartasunen inguruan ogasuneko ikuskatzailea ematen ari zen deklarazioan. Deklarazioa amaitzean, abeslaria keinuka ikusi zuen. Epaileak galdetu zion ea zer gertatzen zitzaion, eta hark erantzuten zion, laugarren aldiz, ea salatik atera zitekeen, zorabiatuta sentitzen baitzen. Epailea harriturik geratu zen ez zelako konturatu hiru aldiz eskatu ziola salatik ateratzea. Adibide hau:*

- a) Komisio errore bat da.
- b) «Atribuzio akastuna» izendatzen da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Epaileak ezagutzen ditu aurreko epaiketen ondorioak. Horietan frogatu zen Julian Villarrobako alkatea zen garaian bere patrimonioa legez kanpo handitu zela 9 milioitan. Badaki, baita ere, delituak egin ziren garaian Julian Isabelen managerra izan zela. Juliani buruz duen informazioa kontuan edukita, eta informazio horrek Isabelen kontuekin duen erlazioarengatik, seinaleen detekzioaren teoriaren arabera:*

- a) Seguru aski, bere erabaki-irizpidearen ondorioz, epaileak Isabelen kontuetan delitu-adierazgarriak hautemateko joera izango du.
- b) Probabilitate gutxi daude epaileak Isabelen kontuetan delitu-adierazgarriak hautemateko joera hautematea.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Suposa dezagun epaileak pentsatzea Isabel bidegabe kondenatuz gero haren karrera eta abeslari ospea betiko hondoratuko zituela. Suposa dezagun epaileak, halaber, Isabel errugabe deklaritzen badu akatsa hain handia izango ez dela pentsatzea, izan ere, Villarrobako ustelkeriaren benetako «garunak» beste kausetan kondenatuak izan baitira, eta denbora luzea pasako dute kartzelan. Suposizio honetan, seinaleen detekzioaren*

teoriaren arabera, epailearen erabakitze irizpidea kontserbadorea izango da. Horrek eragingo luke hautematea ez daudela adierazgarriak Isabel inkulpatzeko, zeren kasu honetan:

- a) Alarma faltsuaren kostua omisioaren kostua baino handiagoa da.
- b) Omisioaren kostua alarma faltsuaren kostua baino handiagoa da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

16. kasua

Gure taldean galdeketetan lengoia ez-ahozkoa aztertzen duen adituak oso irizpide zorrotza eta kontserbadorea du pertsona bat gezurra esaten ari dela hautematean.

Galdera

1. *Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera, hau gertatzen da:*

- a) Uste du norbait gezurra esaten ari delako salatzea larriagoa dela testigantza faltsu bat pasatzea baino.
- b) Uste du egoera honetan alarma faltsuaren kostua omisioaren kostua baino handiagoa dela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

17. kasua

Osasun ikuskatzaile batek jatetxe baten dokumentazioa errepasatzen du bisitatu aurretik. Naiz eta inoiz ez den han izan eta ez duen haren inguruan ezer entzun, konturatzen da jatetxearen jabeetako bat haurtzaroko bere lagun bat dela. Seinaleen Detekzioaren Teoriaren (SDT) arabera, litekeena da jatetxearen sukaldeko osasungarritasunik ezak hautemate-rako orduan isuriak adieraztea.

Galdera

1. *Seinala ezazu egokia.*

- a) Seinalearen gertaeraren apriorizko ezagutzarengatik.
- b) Bere aukeraketa irizpidearengatik
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidearekin jarraituz, seinala ezazu egokia. Litekeena da ikuskatzaileak beste kasuetan baino zehartasun edo isuri handiagoarekin epaitzea presente ez dauden osasungarritasunik ezak.*

- a) Zeren kasu honetan omisioaren kostua ohikoa baino handiagoa baita.
- b) Zeren, nahiz eta pentsatu arautegiak betetzen dituen jatetxe bat bidegabe zigortzeak larritasun txikiagoa duela osasun publikorako arriskutsua izan litekeen jatetxe bat irekita uztea baino, kasu honetan larritasun handiagoa izango luke lagun bat bidegabe zigortzeak.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

18. kasua

X andreak 2 urtez irainak eta laidoak (vejación) jaso zituen sarritan bere bikotekidearengandik. Haren familiak esaten zion bikotekidea krudela zela eta ez zuela maite, erlazioa moztu egin behar zuela. X andreak, aldiz, bikotekidearekin zoriontsu dela baieztatzen du, hark maite duela eta arrazoiarekin «kritikatzen» zuela.

Galderak

1. *Adibide honek adierazten du:*

- a) Ez garela errealitateaz kontziente, baizik eta gure pertzepzioez.
- b) Pertzepzioa ezin dela ikertu, ezta ulertu ere, ikuspuntu zientifiko batetik, aldagai subjektiboen baitan baitago.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidearekin jarraituz, X andreak 2 urte eta gero harremana utzi zuen. Harreman hura moztu baino hilabete lehenago, X andreak Galiziara egin zuen bidaia bat bere lehengusina Mainerrekin eta haren senarra Jokinekin. Bidaia horretan konturatu zen Mainer eta Jokinen arteko harremana ez zela berak izan zuena bezalakoa. Mainerrek eta Jokinek askoz ere zoriontsuago ziruditen. Gainera konturatu zen berak ere nahi zuela bikotekideak Jokinek Mainer tratatzen zuen bezala tratatzea. Etxera bueltatzean, X andreaken bikotekideak ez zuen interesik azaldu bidaiari nola pasa zuen jakiteko. Interes falta hori ohikoa zen bikotekidearengan, berak egiten zituen gauzengatik. X andreak ez zion inoiz interes falta horri erreparatu. Aldiz, bidaiaren berri jakiteko interes falta hau, bere pertsonarenganako interes faltatzat hartu zuen, eta haserrea eta tristura sentitu zuen. Gertaera batek bera (bikotekidearen interes falta) egoera honetan modu ezberdinean hauteman izana izan liteke:*

- a) Kontraste efektu bat.
- b) Blokeo efektu bat.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

Arreta

Arreta ingurunean eskuragarri dagoen informazio osotik informazio espezifiko bat hautatzen duen prozesu kognitiboa da. Baliabide kognitiboak mugatuak direla eta, ezinezkoa da informazio guztia jaso, analizatu eta interpretatzea. Garunak mekanismo multzo bat jartzen du martxan une bakoitzean hautatzeko zer informazio prozesatuko den modu eraginkorrean. Batzuetan, hautaketa hori, automatikoki egiten da, estimuluek kontrolatuta (goranzko kontrola), eta guretzat oharkabean gertatzen da. Beste batzuetan, ordea, kontrola boluntarioa da estimuluengan, zeinetan arreta jarriko baitugu aukeratzen ditugulako (beheranzko kontrola).

Arretari buruz hitz egiten denean, prozesu askori buruz hitz egiten da. Arretaren prozesu bakoitzaren ikerketa hobeto zehazteko, onartzen da arreta jarraitua, hautazko arreta, arreta zatitua eta arreta exekutibo bat daudela. Prozesu hauen ikerketatik teoria asko garatu dira, adierazteko nola egiten duen arretak informazioaren hautaketa, estimuluaren prozesamenduan zein momentutan hautatzen diren estimuluak prozesamendu sakonago bat jasotzeko, zer den prozesamendutik kanpo geratzen dena, nola banatzen diren baliabide kognitiboak estimuluen artean, eta arreta prozesua ulertzeko beste galdera asko.

Atal honetan 1 fenomeno, 1 kasu, 4 esperimentu eta 29 egoera aurkezten dira. Galderetan, besteak beste, honako gai hauek lantzen dira: goranzko eta beheranzko kontrola, prozesamendu automatikoa, hautazko arreta, arreta zatitua, arreta jarraitua, arreta exekutiboa, arretaren teoriak eta beste zenbait kontzeptu.

Eduki hauei buruz ikasteko, irakurri Sanjuán, Rodríguez eta Arriolaren liburuxka (2014, 93-117 or.), bertan baitaude teoriak azalduta. Hala ere aipatu behar dugu galderen lan koaderno honetan Mackintosh (1975) teoriaren inguruko galdera batzuk egiten direla eta liburuxka honetan ez dela bere aipamenik egiten, beraz hemen azalpena. Estimuluek elkarren artean antzekotasuna dutela esango dugu elkarren artean hainbat elementu partekatzen dituztenean. Hala ere, elementu komunetz gain elementu ezberdintzaileak ere izango dituzte. Mackintosh-en (1975) teoriaren arabera estimuluen ezaugarri ezberdintzaileak hauek izan ditzaketen ondorioekin elkartzen dira. Horrela, ikaskuntza sozietate hau arreta ikaskuntza batera igaroko da, arreta ezaugarri ezberdintzaile hauek fokalizatuz.

ESPERIMENTUAK

1. esperimentua

Ikertzen ari gara zer efektuak dituzten ikasitako iragarpenek (prediktibilitateak) arretaren gainean. Esperimentuak hiru fase ditu: 1. fasea, 2. fasea eta froga. 1. fasean, parte-hartzaile guztiek ordenagailuz aurkeztutako diapositiba sekuentzia batzuk jasotzen dituzte. Sekuentzia horietan gezurrezko 16 enpresen izenak agertzen dira zenbait alditan. Enpresa horien izenak agertzen diren bakoitzean, testu batez adierazten da enpresa horien balorazioa burtsan igo ala jaitsi egin den. 1. fasean parte-hartzaileek enpresa bakoitzaren 14 aurkezpen jasotzen dituzte. Enpresen erdiaren akzioek beti izaten dituzte aldaketa berdinak kotizazioan (beti irabazten dute balioa edo galtzen dute balioa); enpresen beste erdiaren akzioak aldien % 50ean balioz igotzen dira (7 aldiz), eta balioa galtzen dute aldien beste % 50ean. 2. fasean, 16 enpresen izenak haien fundatzailearen izenarekin parekatuak agertzen dira. Enpresa bakoitza 8 aldiz parekatzen da dagokion izenarekin (adibidez, Lasa Garraioak → Jose Angel Mediavilla). Azkenik, froga fasean parte-hartzaileei enpresen zerrenda bat aurkezten zaie eta eskatzen zaie enpresa horien fundatzaileen izenak idaztea aldamenean. Eginbehar honetako akats kopurua zenbatzen da burtsan zuten balorazioan igoerak edo irabaziak aurrerateko, 1. Fasean, enpresen izenak iragarle onak edo txarrak izan ote zirenaren arabera. Antzeko errore-tasa ikusi da aurrerateko gaitasun ona eta txarra zutenengan.

Galdera

1. Zer teoriaren arabera espero litezke emaitza horiek?
 - a) Broadbent.
 - b) Treisman.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. esperimentua

Ikertzen ari gara zer efektuak dituzten ikasitako iragarpenek (prediktibilitateak) arretaren gainean. Esperimentuak hiru fase ditu: 1. fasea, 2. fasea eta froga. 1. fasean, parte-hartzaile guztiek ordenagailuz aurkeztutako diapositiba sekuentzia batzuk jasotzen dituzte. Sekuentzia horietan 16 hegazkin-konpainien izenak agertzen dira zenbait alditan. Hegazkin-konpainia horien izenak agertzen diren bakoitzean, Barajaseko (Madrid) aireportuko zein pistan lurrartuko duten adierazten da. 1. fasean parte-hartzaileek hegazkin-konpainia bakoitzaren 14 aurkezpen jasotzen dituzte. Hegazkin konpainia erdik beti pista berdinean egiten dituzte lurreratzeak (adibidez Iberia → 4. pista); beste hegazkin-konpainien erdiek %50etan pista batean (adibidez Air France → 3. pista) (7 aldiz) eta %50 aldiz bestean (adibidez Air France → 7. Pista). 2. fasean, 16 hegazkin-konpainien izenak beraien fundazio urtearekin parekatuak agertzen dira. Hegazkin-konpainia bakoitza 8 aldiz parekatzen da dagokion urtearekin (adibidez, Iberia → 1965). Azkenik, froga fasean parte-hartzaileei hegazkin-

konpainien zerrenda bat aurkezten zaie eta eskatzen zaie hegazkin-konpainia hauen fundazio urtea idaztea aldamenean. Hegazkin-konpainiak lurrartze-pistaren iragartzeko gaitasuna ona ala txarra zenaren arabera akats kopurua zenbatzen da. Antzeko errore-tasa behatzen da aurrerako gaitasun ona eta txarra zutenengan.

Galdera

1. *Esperimentu honen emaitzak espero dira:*

- a) Mackintosh-en teoriaren arabera.
- b) Broadbent-en teoriaren arabera.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak

3. esperimientua

Ikerketa bat burutzen da 1. mailako Psikologiako bi ikasle talderekin. Bi taldeek bideo-konferentzia baten proiektzioa jasotzen dute oroimen mota ezberdinei buruzkoa —berentzat gai berria da—. Talde bateko parte-hartzaileei (MUGIKOR TALDEkoei) bideo-konferentzian zehar mugikorra piztuta edukitzea uzten zaie. Bideoa bukatzean, talde honetako parte-hartzaileen artean 43 ikasle hautatu dira; parte-hartzaile horiek, nahiz eta mugikorra mahai gainean eduki, ez dute hartu proiektzioak zirauen bitartean. Beste talde bateko parte-hartzaileei (MUGIKOR-GABE TALDEkoei) eskatzen zaie mugikorrak entregatzea eta bideoa amaitzean bueltatuko zaizkiela. Azkenik, bi taldeko parte-hartzaileei azterketa bat egiten zaie bideo-konferentziako edukiei buruz. Azterketan lortutako batez besteko puntuazioak hauek izan dira: 7,2 MUGIKOR TALDEKO 43 parte-hartzaileentzat eta 9,3 MUGIKOR-GABE TALDEKO parte-hartzaileentzat.

Galdera

1. *Emaitza hauek adierazten dute:*

- a) Ikasleek prozesamendu automatikoa erabiltzen dutela mugikorrarekin erlazionaturiko informazio iturrietan (hauek esplizituak izanik, deiak edo mezuak, edo bakarrik telefonoarekin erlazionaturiko ideiak edo oroitzapenak).
- b) Mugikorrarekin erlazionaturiko informazio iturrien informazioaren prozesamenduak (hauek esplizituak izanik, deiak edo mezuak, edo bakarrik telefonoarekin erlazionaturiko ideiak edo oroitzapenak) prozesamendu kontrolatua gutxitzen duela ikasleengan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. esperimientua

Segimendua edo itzaleztatzea (sombreado) erabiltzen duten entzumen dikotikoari buruzko esperimientuetan.

Galdera

1. *Zein da aukerarik egokiena?*

- a) Parte-hartzaileak isilpean kanal batetik bakarrik jasotzen duten informazioa oroitzen saiatu behar dira.
- b) Parte-hartzaileak isilpean bi kanaletatik jasotzen duten informazioa oroitzen saiatu behar dira.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

1.GO FENOMENOA

Stroop efektuaz hitz egiten

Galdera

1. *Zein da aukerarik egokiena?*

- a) Hitzaren irakurketa automatikoki gertatzen da hitzaren kolorearekiko informazio kongruentea duenean soilik.
- b) Hitzaren irakurketa automatikoki gertatzen da hitzaren kolorearekiko informazio inkongruentea duenean soilik.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

KASUAK

1. kasua

Ana bere galtzerdi gorri gustukoenak bilatzen ari zen, eta konturatu zen lehorgailutik jaso-tako arropa garbiaren poltsan egon zitekeela Gorkak arropa nahastu du eta, ustekabean, bi euroko txanpon bat aurkitu du.

Galdera

1. *Zein da txanpona eraginkortasunez prozesatzea ahalbidetu dion arreta kontroleko mekanismoa?*

- a) Bottom up.
- b) Top down.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak

2. kasua

Azterketatik ateratzean, nire atzean zegoen ikaskideak esan dit azterketan ahapeka aritu zaidala 4. galderaren erantzuna galdetzen, eta ea zergatik ez diodan kasurik egin.

Galdera

1. *Gertaera hau (egoera horretan nire lagunaren mezua ez entzutea) azaldu daiteke*

- a) Broadbent-ek proposatzen duen ereduari erreferentzia eginez.
- b) Atalase absolutuari erreferentzia eginez.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. kasua

Dr. A ikaskuntzako teorialari handia da, eta azken 40 urte hauetan ekarpen ezagun asko egin du arlo horretan. Duela gutxi eredu teoriko bat argitaratu du beste autore batekin —Dr. B, gazteagoa eta ez hain ezaguna—.

Galdera

1. *Jakintza arlo horretako ikerlariak uste dute —oker uste ere— teoria horren autoretza Dr. Arena dela hein handiagoan Dr. Brena baino.*

- a) Ezkutuko inhibizioa.
- b) Blokeoa.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Aurreko adibidea ilustratzen duen fenomenoa gerta daiteke:*

- a) Ereduaren autoretzan Dr. Aren presentziak (ospe handiko teorialaria) Dr. Bri (egile gazteagoa eta ez hain ezaguna) arreta ez jartzea eragin duelako.
- b) Dr. Aren (ospe handiko teorialariaren) eredu teorikoaren proposamena ez da harrigarria (espero dena da) eta horregatik ez dute lotzen (asoziatzen) Dr. B ereduarekin.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. kasua

Irakasgai honetan ikasi dugu bi pertsonak egoera berdinean gauza ezberdinak hauteman ditzaketela (beraz, modu ezberdinean emozionatu, ikasi... modu ezberdinean porta daitezke).

Galdera

- 1. *Hau horrela izanik, psikologo kognitiboaren papera pertsonen portaera ulertzeko eta azaltzeko (besteak beste, haiei laguntzeko):*
 - a) Egoera berdinean bi pertsona horietan aktibatzen diren top-down prozesuei dagokienez hipotesi egiaztagarriak proposatzea inplikutzen du.
 - b) Giza adimenaren portaerari buruzko ikuspegi mekanizista eta determinista bat onartzea dakar.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. kasua

Ana bere galtzerdi gorri gustukoena bilatzen ari da. Arropa garbiaren saskian egon daitekeela konturatu da. Anak saskiko arropa nahastu du eta, azkenik, han ez dagoela on-dorioztatu eta utzi dio bilatzeari.

Galdera

- 1. *Anari galtzerdiak saskian bilatzea ahalbideratu dion arreta:*
 - a) Bottom-up da, zeren ezaugarri sentsoialetan oinarritutakoa da.
 - b) Top-down.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

6. kasua

Psikologia Dinamikoko apunteak errepasatzeko gai naiz urdaiazpiko eta gazta sandwich bat egiten dudan bitartean, baina sandwicha pixka bat erre zait eta ez zait geratu adi nagoenean bezain ondo.

Galdera

1. *Adibide honek zera adierazten du:*

- a) Sandwich bat egiteko beti prozesamendu kontrolatua erabiltzen dudala, neurri batean behintzat
- b) Nire ikasteko modua automatizatu ahal dudala.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. kasua

Sarritan jaso eta erantzuten ditut mezuak nire mugikorrean, klasean irakasleak esaten duenari buruzko apunteak hartzen ditudan bitartean. Kontuan izanda mezuen bidez jasotzen dudan informazioa eta irakasleak azaltzen duen informazioa ez ditudala ezagunak (neurri batean, behintzat), seguruenik nire prozesamendu-baliabideak banatzen ari naiz bi informazio-iturri horien artean.

Galdera

1. *Honek adieraziko luke:*

- a) Hautazko arreta fokalizatuaren adibide bat dela.
- b) Arreta jarraituaren adibide bat.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

8. kasua

Seinala ezazu egokia den aukera. Bikote bat eztabaidan hasi da oporrak pasatzeko interneten hotel bat bilatzen ari zirela. Biek hotel bera ikusi dute web orri batean, eta beste bezeroek utzitako komentario berdinak irakurri dituzte. Jonek pentsatzen du hotel hori onena dela oporrak pasatzeko, igerilekua eta teniseko pista duelako. Maddik uste du ez dela egokia hiriaren erdialdetik urruti dagoelako eta pixka bat garestia delako.

Galdera

1. *Eredu honek adierazten du:*

- a) Top-down (goitik-beherako) prozesuen eragina pertzepzioan.
- b) Top-down (goitik-beherako) prozesuen eragina arretan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

9. kasua

Pertsona bat kafetegi batetik ateratzen ari zen X jauna bahiketa egitera zihoanean. Pertsona horrek X jaunarengan jarri zuen arreta, maindire batean bildutako zerbait (eskopeta) handia zeramalako.

Galdera

1. *Pertsona horrek arreta X jaunaren «zerbait» horretan jartzera eraman zuen arreta kontrola da:*

- a) Top-down.
- b) Bottom-up.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

10. kasua

Psikologoak eskizofrenia baten sintomekin erlazionaturiko informazioa modu eragin-korragoan prozesatzen du beste estimuluekin konparatuz.

Galdera

1. *Informazio hautaketa honen arduraduna den arreta kontrola da:*

- a) Bottom-up eta motibazio testuinguruan azal daiteke.
- b) Top-down.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

11. kasua

Broadbent eta Tichener tren geltoki batean dabilta elkarren bila. Atzeraturiko tren asko daude eta jendea hitz egiten ari da aztoratuta. Elkar agurtu eta Tichener-ek Broadbent-i esan dio bere teoria kolokan jartzen duten emaitza esperimentalak dituela. Hizketan eta eztabaidatzen hasi dira esperimenduei buruz, baina elkarriketaren erdian Broadbent-ek atzera begiratu du eta emakume bati esan dio: *zuk esan ahal duzu Oxford-era doan trenak 3 orduko atzerapena duela?*

Galdera

1. *Zein da aukera zuzena?*

- a) Erratu egin zen esan zuenean aukeraketa iragazkiak (filtroak) arreta jartzen ez zitzaion informazioa blokeatu egiten zuela.
- b) Erratu egin zen esan zuenean hautazko arreta fokalizatu baten ardura duen iragazki (filtro) bat zegoela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

12. kasua

Sugus pakete batek normalean 5 zaporetako gozokiak izaten ditu: marrubia, laranja, limoia, anana eta gerezia. Gozokien papera zaporearen arabera da: gorria marrubizkoarentzat, laranja laranjazkoarentzat, horia limoizkoarentzat, urdina ananarentzat eta morea gereziaarentzat. Peiok 5 urte ditu eta sugusak eskaintzen dizkieten bakoitzean gorri kolorekoak bilatu eta hartzen ditu, gehien gustatzen zaion zaporea marrubia delako.

Galdera

1. *Gehien gustatzen zaizkion sugusak aukeratzeko, Peiok:*

- a) Top-down arreta prozesu kontrolatu bat jartzen du martxan.
- b) Ez du inongo arreta prozesurik jartzen martxan, zeren hain ongi ezagutzen ditu sugusak hautaketa prozesua automatizatua baitu.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Mackintosh-en (1975) arabera Peiok sugusaren paperaren koloreari arreta jartzen dionean, arreta horrek:*

- a) Paperaren kolorea eta gozokiaren zaporea elkartzen (asoziatzen) laguntzen dio.

- b) Modu egokian erantzuten laguntzen dio, aurretik, paper ezberdinen koloreei buruz ikasitakoaren arabera.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

13. kasua

Ingeleseko hiztegi batean orriak pasaz «bottom» hitza bilatzen ari naiz. Bilaketan, orriaren goiko zatian agertzen den hitzaren lehen hizkian jartzen dut arreta.

Galdera

1. *Adibide honetan, arreta kontrola:*

- a) Bottom-up (behetik gora) da.
- b) Top-down (goitik behera) da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

14. kasua

Kirol denda batean beherapenak iragartzen dituen kartel fluoreszente laranja batean jarri dut arreta. Kirol zapatila batzuk erosi nahi ditudanez, erakusleihoa begiratzen geratu naiz.

Galdera

Adibide honetan, arreta kontrola:

- a) Bottom-up (behetik gora) da.
- b) Top-down (goitik behera) da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

15. kasua

Autobusean noa, kontzentratuta, nire aste-bukaerako planetan pentsatzen. Bat-batean, nire aldamenean doan emakumeari entzun diot aste-bukaeran euria egingo duela.

Galdera

1. *Adibide honek zer suposatzen du?*

- a) Broadbent-ek eskaintzen duen hautazko iragazkiaren teoriaren aldeko ebidentzia suposatzen du.
- b) Treisman-ek eskaintzen duen hautazko iragazkiaren teoriaren aldeko ebidentzia suposatzen du.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

16. kasua

Gai naiz telefonoz nire lagun baten zalantza argitzeko, nire ohiko supermerkatuan erosketa egiten ari naizen bitartean. Baina, nire lagunak deitu didanean, Pariseko aireportuan ontziratze (embarque) atea bilatzen ari nintzela, beranduago deitzeko eskatu diot, eta telefonoa eskegi egin dut.

Galdera

1. *Adibide honek zer erakusten du?*

- a) Ontziratze (embarque) atearekin erlazionaturiko informazioa modu kontrolatuan prozesatu behar dudala.
- b) Nire lagunaren arazoarekin erlazionaturiko informazioa modu kontrolatuan prozesatu behar dudala.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

17. kasua

Jonek bizilagun batekin topo egin zuen atarian, eta bizilaguna kontatzen hasi zitzaion auzoan lapurretak gertatzen ari zirela. Hizketan ari ziren bitartean, Jonek arreta galdu zuen momentu batez, bizilagunaren zapatilak bereen berdinak zirela konturatu zenean.

Galdera

Jonek, une batez, bizilagunaren zapatilei buruzko informazioari prozesamendu eraginkorragoa eskaini izanaren ardura zein arreta-kontrolak dauka?

- a) Bottom-up (behetik gora).

- b) Top-down (goitik behera).
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

18. kasua

Etxera iritsi bezain laster, Jonek bere emazteari kontatu dio lapurretak izan direla auzoan. Berokia kendu bitartean, ozenki hitz egiten ari da. Jon, berokia zintzilikatzeko mugimendua egitean, esekitokia betiko lekuan ez dagoela konturatu da. Nahiz eta esekitokiak urteak zeramatzan leku berean, duela astebete lekuz aldatu zuten.

Galdera

1. *Adibide honek zer adierazten du?*

- a) Gizakiek informazioaren prozesamendu mugatua dugula eta beroki bat zintzilikatzeko ekintzari, sinplea badirudi ere, beti prozesamendu kontrolatua eskaini behar diogula.
- b) Treisman-en prozesamendu automatiko eta kontrolatuarekin bat dator.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

19. kasua

Bi ordu barru daukat azterketa. Nekaturik nago liburutegian eserita egoteaz, eta hankak luzatzera atera naiz kanpora. Denbora aprobetxatzeko, apunteak hartuta ateratzen naiz. Bueltaka nabilenean, 40 minutu pasa ondoren zailenak iruditzen zaizkidan kontzeptuak errepasatzeko gai naiz.

Galdera

1. *Apunteen errepaso eraginkor hau posible da, zein arreta motari esker?*

- a) Nire arreta jarraituari eta arreta zatituari esker.
- b) Nire arreta jarraituari eta hautazko arreta fokalizatuari esker.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

20. kasua

5 urte daramat Donostian bizitzen. Autobus lineak dagokien zenbakiekin erlazionatzen ditut modu ezin hobean. Pearce eta Hall-en (1980) arabera autobusa bere geltokira iristen den heinean gehiago jartzen dut arreta daraman zenbakian, autobusaren beste edozein ezaugarri ezberdintzaileetan baino.

Galdera

1. *Zergatik?*

- a) Zenbakian jartzen dut arreta bere esanahiaren inguruan edo bere ondorioei buruz ikasteko.
- b) Arreta zenbakian jartzen dut, egoera horretan modu eraginkorrean erantzuteko.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

21. kasua

Nire lagunarekin hitz egiten ari naiz asteburuan egin dugunari buruz irakaslea klasea ematen ari den bitartean. Irakasleak nire izena esan du, eta azaldu duen azkena errepikatzeke eskatu dit. Erantzun diot ez daukadala ideiarik esan duenari buruz, ez bainintzaion arreta jartzen ari.

Galdera

Adibide honen alderdi guztien artean (klaseari ez diot arretarik jartzen eta nire lagunaren elkarrizketari arreta jartzen ari naiz; irakasleak deitu didanean arreta jarri diot, baina ez naiz gai izan bere azalpena zer nolakoa zen oroitzeko), zein da hobekien azaltzen duen eredu teorikoa?

- a) Broadbenten eredua.
- b) Treismanen eredua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

22. kasua

Nire lagun Gorkarekin xakean jolasten dudan bakoitzean zailtasunik gabe irabazten diot. Gaur telefono dei bat jaso dut, lan eskaintza beti buruzkoa, berarekin jolasten ari nin-

tzen bitartean. Xakean jokatzeko aritu naiz telefonoz hizketan ari nintzen bitartean. Lehenengo aldia izan da Gorkaren kontra galdu dudala.

Galderak

1. *Adibide honek zer adierazten du?*

- a) Xakeari buruzko informazioa modu kontrolatuan prozesatu behar dudala eta telefonoko deiarekin erlazionaturiko informazioa modu automatikoan.
- b) Xakeari buruzko informazioa modu automatikoan prozesatu behar dudala eta telefonoko deiarekin erlazionaturiko informazioa modu kontrolatuan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Zer gertatu izango litzateke deiari erantzuteko xakean jolasteari utzi banio?*

- a) Deiari modu eraginkorragoan erantzun ahal izango nion, prozesamendu kontrolaturako gaitasun handiagoa izango nukeelako, xakeari jolasten uztean prozesamendu automatikoa aurrezten baitut.
- b) Deiari modu eraginkorragoan erantzun ahal izango nion prozesamendu kontrolaturako gaitasun handiagoa izango nukeelako, xakeari jolasten uztean prozesamendu kontrolatua aurrezten baitut.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

23. kasua

Isabel dirua zuritu izanaren delitu batengatik auzipeturiko abeslari famatu bat da. Prozesu judizialak dirauen bitartean atera diren testigantzek eta ebidentziek auzipetua erruduna dela pentsatzera bultzatu dute iritzi publikoa. Beste alde batetik, bere janen klubeko lehendakariak errugabea dela uste du. Telebistan edo irratian epaiketari buruzko berririen bat agertzean, kanalez aldatzen du.

Galderak

1. *Adibide honek zer adierazten du?*

- a) Top-down prozesuek pertzepzioan duten eragina
- b) Top-down prozesuek arretan duten eragina.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Isabel abeslariaren fanen klubeko lehendakariak beste kanal bat bilatzen duenean, arreta prozesu bat jartzen da martxan; haren kontrola:*

- a) Bottom-up da.
- b) Top-down da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Nahiz eta prozesu judiziala 3 astetan bukatuko den, Isabel Valladolidera joan da kontratatua zuen eta ezeztatu ezin zuen emanaldi bat eskaintzera. Emanaldian, kazetari bat ikusi du jendartean abesti bat interpretatzen ari den bitartean, eta kontzertuaren ostean ziur egingo dizkioten galderak nola erantzungo dituen pentsatzen jartzen da. Abestiaren azken estrofa iristean, nahasi egin da eta berriro lehen estrofa abestu du. Adibide honek adierazten du:*

- a) Isabelek abesti hori modu egokian interpretatzeko prozesamendu kontrolatua behar duela.
- b) Isabel bere prozesamendu kontrolatuaren parte garrantzitsu bat erabiltzen ari dela kazetariak egingo dizkioten galderari erantzuna emateko.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

24. kasua

Galdeketa batean auzipetu baten deklarazioa behatzen ari nintzen. Ez-ahozko komunikazioko adituaren argibideak jarraituz, arreta une bakarrean jartzen nuen: auzipetuak, hitz egin bitartean, eskuak zer posiziotan jartzen zituen. Auzipetua, bat-batean, oihuka hasi zen, eta eskuetan jarri beharrean, haren aurpegian jarri nuen arreta.

Galderak

1. *Azken kasu honetan (arreta auzipetuaren aurpegian jartzen dudanean) arreta kontrola zein motatakoa da?*

- a) Bottom-up da.
- b) Top-down da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Galdeketa amaitzean, taldekideekin bilera batean, komunikazio ez-ahozkoan adituak esaten digu auzipetua gezurti bat dela. Baina, nire kideak esaten du bere ustez ez dela gezurtia, esaten dituen gauzak koherenteak baitira. Adibide honek adierazten du:*

- a) Top-down prozesuen eragina arretan eta pertzepzioan.

- b) Arretaren ekintza modulatzaileraren pertzepzioan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

25. kasua

Pertika jauzilari batek jauzi egiteko teknika berri bat probatu du lehiaketa garrantzitsu batean ari den bitartean. Nahiko erraza den altuera bat gainditzen saiatu da, baina ez du lortu. Konturatzen da ezin duela teknika berria ondo erabili, jendetzaren oihuek arreta galarazten diotelako. Hurrengo saiakeran bere ohiko teknika erabiltzea erabaki du. Burutzen duenean, nahiz eta jendeak oihuka jarraitu, lortu du altuera gainditzea.

Galderak

1. *Adibide honek zer adierazten du?*

- a) Jauziak beti modu kontrolatuan prozesatu behar dituela.
- b) Nahi gabe izanda ere, publikoaren oihuen informazioa modu kontrolatuan prozesatzen du neurri batean.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Atletak bere ohiko teknika modu zehatzagoan burutzen du berria baino. Zergatik?*

- a) Bere ohiko teknikak ez diolako eskatzen prozesamendu kontrolatua.
- b) Teknika automatizatua dagoenean, jendetzaren oihuei arretarik ez jartzea eragiten diolako.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Lehiaketa aurreko entrenamenduetan, atletak bere teknika berria ezin hobeki burutzen zuen. Adibide honek zer adierazten du?*

- a) Gaur egun, jauzi egiteko bere teknika berriak batzuetan prozesamendu kontrolatua eskatzen diola, eta beste batzuetan prozesamendu automatikoa.
- b) Jendetzaren oihurik gabe, atletak bere teknika berria modu automatikoan egin dezakeela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

26. kasua

Ehiztari batek 4 ordu darama bere postuan basurdea agertzeko zain.

Galdera

1. *Ehiztariak animalia agertu arte zain dagoela ernai egoteko duen gaitasunak zer mekanismo du azpian?*
 - a) Orduaren eta ehiztariaren zirku erritmoaren araberakoa da.
 - b) Ehiztariaren arousalaren edo aktibazio mailaren araberakoa da: zenbat eta arousal maila handiagoa, errazago eta modu eraginkorragoan eutsiko dio ernai egoteari.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

27. kasua

Kamiseta bat nirearen berdina jantzita daraman pertsona bati begira geratu naiz.

Galdera

1. *Adibide honek zer adierazten du?*
 - a) Bottom-up prozesuek arretan duten eragina. Nire arreta kontrolatzen dutenak estimulua-
ren ezaugarri fisikoak dira (kamiseta).
 - b) Top-down prozesuek arretan duten eragina.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

28. kasua

X andreak irainak eta laidok (vejación) jaso zituen sarritan bere bikotekidearengandik. 2 urte eta gero, Galiziara egin zuen bidaia bat bere lehengusina Mainerrekin eta haren senarra Jokinekin, eta haien arteko harremana ikusita, bere bikotekideak azaltzen zion interes falta hauteman zuen. Horren ondorioz, bikotekidearekiko harremana bertan behera uztea erabaki du. Hemendik aurrera X andreak arreta handiagoa jartzen du bikotekideak beren eguneroko bizitzan erakusten dion duten interesean.

Galdera

1. *Arreta kontrola zein motatako dela adierazten du horrek?*

- a) Bottom-up dela.
- b) Top-down dela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

29. kasua

Broadbent eta Tichener tren geltoki batean dabilta elkarren bila. Atzeraturiko tren asko daude eta jendea hitz egiten ari da aztoratuta. elkar agurtu eta Tichener-ek Broadbent-i esan dio bere teoria kolokan jartzen duten emaitza esperimentalak dituela. Hizketan eta eztabaidatzen hasi dira esperimenduei buruz. Bitartean, megafoniatik esan dute Oxford-era doan tren bat iritsi dela 4. nasara. Baina, ez Broadbent ezta Tichener ere, ez dira ohartu eta, azkenean, Broadbent-ek trena galtzen du.

Galdera

1. *Adibide hau, nork proposatzen duen arreta-prozesuaren funtzionamenduarekin da bateragarria?*

- a) Broadbent-ek proposatzen duenarekin.
- b) Tichener-ek proposatzen duenarekin.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

Motibazioa

Motibazioa da edozein portaera aktibatu, zuzendu eta mantentzen duen prozesua. Motibazioaren prozesua hasten da motibo bat agertzen denean. Motiboa da behar edo desio bat, helburu bat zehazten duena. Helburua lortzeko bidean, motiboak zerbait egiteko asmoa sortzen du, gure perspektiban zerbait positiboa lortzeko asmoa. Egoera edo estimulu jakin batzuek organismoa aktibatzen dute, akzioa hasteko. Behin helburura iritsiz gero, ondo edo gaizki sentitzen gara, eta ondorio batzuk izango dira.

Mota askotako motiboak daude. Batzuk fisiologiakoak dira, eta behar primarioak asetzeko abiarazten dute organismoa. Horien artean, gosea, egarria edo sexua daude. Beste batzuek ez dituzte behar primarioak betetzen, baina behar primarioekin lotura dutelako horiek ere motibo bihurtzen dira. Motibo hauek behar primarioak asebetetzen laguntzen dute. Azken horiek, dirua kasu, bigarren mailako motiboak dira.

Beste motibo batzuk sozialak dira —lorpenak, boterea edo afiliazioa, adibidez—. Motibo kognitiboek ere motibazio prozesuan oso garrantzitsuak dira, esate baterako, helburuekin, auto-kontzeptuarekin, atribuzio estiloekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

Prozesu motibazionala ulertzeko, onartzen da jokabidea gidatzen duen errefortzua barnekoa edo kanpoko izan daitekeela. Motibazio intrintsekoa gure interesetatik eta jakin-minetik dator. Motibo intrintsekoek mugitzen gaituztenean, ekintzak hasten ditugu, errefortzu intrintsekoa daramatelako, disfrutatzen ditugulako. Horren oinarrian autodeterminazio eta gaitasun beharra dago. Motibazio estrintsekoa, berriz, kanpoko eraginez kontrolatuta dago. Kanpoko errefortzu eta pizgarriek garrantzizko rola dute. Askotan hasten ditugu ekintzak horiek lortzeko. Bi motibazio mota hauek ondorio desberdinak izaten dituzte pertsonengan, eta etorkizuneko ekintzetarako motibazioan.

Azken atal honetan, 31 egoera daude. Arazoen bidez, besteak beste, lantzen dira prozesu motibazionala, motiboak, motibazio intrintsekoa, motibazio estrintsekoa, errefortzu eta pizgarriek jokabidean duten eragina, atribuzio kausalak eta motibazioaren teoria batzuen alderdi batzuk.

Eduki hauei buruz ikasteko, irakurri Sanjuán, Rodríguez eta Arriolaren liburuxka (2014, 119-146 or.).

KASUAK

1. kasua

Pertsona batek, jasan duen gertaera negatibo bati buruz, nagusiki, kanpoko egozpen edo atribuzio kausalak egiten dituenean...

Galdera

1. *Zertaz ari gara?*
 - a) Babesgabetasun (etsipen) ikasiaz.
 - b) Nagikeria (edo alferkeria) ikasiaz.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. kasua

PlayStationeko jokoan maila bat pasatzeko behin eta berriz saiakerak egin ondoren (estrategia ezberdinak erabiliz), ez dut berririo jolasten behin ere ez.

Galdera

1. *Desmotibazioa eragiten duten mekanismo psikologikoez hitz egiten:*
 - a) Tratu txar egoera batean sortzen direnen oso antzekoak dira (nahiz eta prozesatzen den informazio mota oso desberdina izan, eta honek eragiten duen egoera psikologikoa, zailantzarik gabe, oso desberdina izan kasu batean eta bestean).
 - b) Motibazio intrintseko handira eta motibazio estrintseko eskasera darama.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. kasua

Kafetera enpresa batek aktore famatu bat (kafean aditua ez dena) kontratatzen duenean bere produktua iragartzeko.

Galdera

1. *Enpresa horrek produktu hori erosteko gure motibazioa pizteko erabiltzen duen mekanismoa, zein da?*
 - a) Kate asoziatibo batean oinarritzen da: produktua → famatua → famatuaren atributu positiboa (adibidez, dotorezia, estiloa, sinpatia, arrakasta...).
 - b) Ez-asoziatiboa da, zeren motibazio intrintsekoa areagotzen du.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. kasua

X Jaunak hurrengo hauteskundeetan botoa eman dezake. Telebistan P alderdiko politikari bat ikusi du hauteskundeak bere alderdiak irabaziko balitu zergak gutxituko dituela esanez.

Galderak

1. *Politikariak, zer egiten ari da?*
 - a) Hautesleek botoa beren alderdiari eman diezaioten, pizgarri bat ematen ari zaizkie.
 - b) Hautesleek botoa beren alderdiari eman diezaioten, haien motibazio intrintsekoa areagotzen saiatzen ari da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *X Jaunari hauteskunde mahaiko lehendakari izatea egokitu zaio. X Jaunak ez du erabaki hau onartu nahi, baina azkenean isun bat ez jasotzearen, eginbehar hori bete du eta lehendakari lanetan aritu da hauteskunde jardunaldiak iraun duen egun guztian. Egoera horretan suertatzen den motibazioari erreferentzia eginez, litekeena da, hauteskunde mahaian lehendakari zereginetan:*
 - a) Gerta daitezkeen arazoak konpontzeko normala baino kreatibitate handiagoa erakustea.
 - b) Bete behar dituen eginbeharrak azaltzen dizkiotenean, normala baino ikaskuntza kontzeptual kaskarragoa adieraztea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Jardunaldia amaitu baino lehen, mahaiko beste kide guztiek botoa ematen dute. Nahiz eta hasiera batean X jaunak botoa emateko intentziorik ez izan, seinalatua ez sentitzeagatik,*

eta besteen aurrean lotsa ez sentitzeagatik, besteek bezala egin eta botoa eman du. X jauna botoa ematera eraman duen motibazioa:

- a) Intrintsekoa, X Jauna delako botoa ematea erabaki duena.
 - b) Estrintsekoa, X Jaunak botoa ematean desatsegin duen egoera bat ekiditen duelako.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
4. *X Jaunak ez du bozkatu, uste duelako 2 milioiko zentsuan bere botoak ez duela hauteskunderen azken emaitzan inolako eraginik izango. Horrek adierazten du:*
- a) Hauteskunderen emaitzen inguruan kontrol pertzepzio baxua du.
 - b) Abstentzioaren portaerari dagokionez egiten duen atribuzio kausala kanpokoa eta egonkorra da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
5. *X Jauna, hauteskunde mahaiko lehendakari lanak bete eta behin, aspertu egin zen eta eginbeharrak errepikakorrak eta errazak iruditu zitzaizkion. Hori kontuan izanda, baiezta dezakegu Csikzentmihalyi-k proposaturiko fluxuaren (edo flow) teoriaren arabera, X jaunak hauteskunde mahaian bere funtzioak betetakoan:*
- a) Motibazio intrintseko handiari eutsi zion, erronka hori bere esku zegoenez ez baitzuen eginbearra bertan behera utzi.
 - b) Fluxuaren esperientzia erraz lortu zuen (eginbearra erraza zelako), baina ez zion esperientziari luzaro eutsi hau ez zen luzaroan mantendu (eginbearra errepikakorra zelako).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. kasua

X irakasleak bere praktika eskoletara ikasleak gehiago joan zitezten lortzeko saioa egin zuen. Horretarako, ikastaroa hasi aurretik iragarri zien ikasleei eskola horietara joateagatik puntu bat gehiago izango zutela irakasgaiaren azken notan.

Galdera

1. *Iragarpen honekin, irakaslea zertan saiatu zen?*
 - a) Bere klaseetara joateko pizgarri bat ematen.
 - b) Bere klaseetara joateagatiko errefortzua ematen.

- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

6. kasua

X irakasleak galdeketa bat egin zuen bere ikasleen artean ikasturte amaieran. Besteak beste, gainditu ez zuten ikasleei eskatu zien estimazio bat egin zezaten —0 (EZER EZ) eta 100 (ASKO) eskala batean— zenbateko eragina izan ote zuten beren ikasteko ohiturek irakasgaiari izandako azken notan. Ikasleen % 92k «85»etik gorako puntuazioa adierazi zuen.

Galdera

1. *Emaitza hauek adierazten dutenez, zer dute ikasleek, irakasgai honen testuinguruan?*
 - a) Notarekiko kontrol pertzepzio altua.
 - b) Autodeterminazio baxua.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. kasua

X irakasleak ematen duen irakasgai bateko ikasle bati ezinezkoa suertatu zaio klase teoriko eta praktikoetara joatea. Irakasgaiaren azken lauhilekoaren azken bi hilabeteetan, oso gaixorik zegoen ahaide hurko bat zaintzen aritu zen. Ikasleak ezin izan zuen nahi bezain beste ikasi azterketa baino lehen, eta ez zuen gainditu. Galdeketa (aurreko galderakoan), bere ikasteko ohiturek edo jokamoldeak notan eragin handia izan zutela erantzun zuen (100eko puntuazioarekin).

Galdera

1. *Emaitza honek adierazten duenez, zer du ikasleak, irakasgai honen testuinguruan?*
 - a) Notarekiko kontrol pertzepzio baxua.
 - b) Autodeterminazio baxua.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

8. kasua

X irakasleari buruz galdetuta, ikasleen % 50ek erantzun zuten irakasgaiari matrikulatu zirela gaia gustuko zutelako (1. azpitaldea). Ikasleen beste %50ek (2. azpitaldea) erantzun zuten graduatzeko kredituak behar zituztelako matrikulatu zirela irakasgai horretan.

Galdera

1. *Sariaren balio ezkuuari buruz dakiguna BAKARRIK kontuan hartuta, eta ikasleak bere eskoletara etortzeko helburu hutsarekin, zer eskaini behar die X irakasleak?*
 - a) Praktiketara etortzeagatik asistentziako puntu bat 1. azpitaldeko ikasleei eskaini behar die.
 - b) Praktiketara etortzeagatik asistentziako puntu bat 2. azpitaldeko ikasleei eskaini behar die.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

9. kasua

X irakasleari buruz galdetuta, ikasleen % 30ek erantzun zuten irakasgaiaren zailtasun maila OSO ERRAZA izan zela.

Galdera

1. *Csikzentmihalyi-aren fluxuaren edo flow teoriaren arabera, zein azkar iritsi ziren ikasle hauek fluxuaren esperientziara?*
 - a) Beste ikasleak baino azkarrago iritsi ziren fluxuaren esperientziara.
 - b) Beste ikasleak baino intentsitate handiagoz iritsi ziren fluxuaren esperientziara.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

10. kasua

Ikasle batek ez du gainditu, 4 alditan, Graduoko titulua lortzeko behar duen azken irakasgaia. Nahiz eta kontziente izan deialdiak geratzen zaizkiola irakasgai hau berriro ikasten hasteko eta azterketara berriro aurkezteko, motibazioa galdu duela sentitzen du.

Galdera

1. *Desmotibazio honen arrazoia, zein da?*

- a) Igurikapen kontrol eskasa da.
- b) Alferkeria ikasia da.
- c) A, b eta c EZ dira zuzenak.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

11. kasua

X jauna armaturik sartu da kafetegi batean eta 11 pertsona bahitu ditu, 6 bezero eta 5 langile. Poliziarekin lehen aldiz komunikatzean iragarri du kartzelan dauden 5 pertsona askatzen 6 ordutan ez badituzte (haren talde terroristako kideak) bahituriko pertsonak banan bana hiltzen hasiko dela. Talde terroristak lortu nahi zuena da munduko herrialde guztiek «Y» erlijioaren oinarriak jarraitzea. X jaunak uste du bere erlijioko Jainkoaren desioa dela gizateria guztiak haren jainkotasuna onartzea, eta desio hori aurreko mendeko profeta baten idatzietan transmititu zen. X jaunak uste du, halaber, Jainkoak betiereko bizitzarekin eta gozamenarekin sarituko duela bere desioa (gizateria osoak Jainko horren jainkotasun bat eta bakarra onartzea) defendatzen zuen oro.

Galderak

1. *Motibazioari dagokionez, modu jakin batean portatzeagatik Jainkoak pertsoneri betiereko bizitza eskaintzen dienean, zertan ari da saiatzen?*

- a) Pertsoneri pizgarri bat ematen.
- b) Pertsonak positiboki saritzen.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Motibazioari dagokionez, X jaunak bere lagunak kartzelatik ateratzen ez badira bahiturako pertsonak hilko dituela esanez agintariak mehatxatzen dituenean, zertan ari da saiatzen X jauna?*

- a) Agintariei pizgarri bat ematen.
- b) Agintariak negatiboki zigortzen.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Pentsa dezagun Jainkoak, benetan, betiereko ematen duela bere desioak betetzeagatik. Portaera hau (jainkotiarra kasu honetan) irakasgaietan ikasi dugun prozesu motibazionalaren aldetik azter dezakegu. Azterketa hori aplikatzean, zer deduzituko genuke?*
- Jainkoak beharrak dituela eta, gainera, hautematen dituela.
 - Jainkoak igurikatzen duela horrela jokatuz (betiereko bizitza eskainiz), nolabait ere, bere beharra betetzen duela.
 - A eta b zuzenak dira.
 - A, b eta c EZ dira zuzenak.
4. *X jauna prest dago bere lagunak kartzelatik ateratzeko exigentzia betetzen ez bada bahitutakoak hiltzeko. Ikuspuntu psikologiko batetik, horrek zer adierazten du?*
- X jaunari ez diola batere axola ekintza horrekin (bahitutakoak hiltzarekin) sorraraz dezakeen mina eta atsekabea.
 - X jaunak prozesatzen du positiboa dela ekintza horren (bahitutakoak hiltzearen) ondorio guztien balantzea.
 - A eta b zuzenak dira.
 - A, b eta c EZ dira zuzenak.
5. *Duela bi hilabete X jaunak bere talde terroristako 5 kide eta lagun preso zeudela jakin zuenean, haserrea, beldurra eta tristura bezalako emozio negatiboekin erreakzionatu zuen. X jaunarentzat oso mingarria zen bere lagunak sufritzen ari zirela irudikatzea. Emozio negatibo horiek sentitzen zituenean, X jaunak arrazoiketa hau egiten zion bere buruari: kideak sufritzen egon arren, Jaunak sarituko ditu eta betiereko bizitzan zoriontsu izango dira. Arrazoiketa hori egin du, zer eginez?*
- Erregulazio emozionala eginez.
 - Intrapsikikoki aurre eginez, sentitzen zituen emozio negatiboen intentsitatea gutxitzeko.
 - A eta b zuzenak dira.
 - A, b eta c EZ dira zuzenak.
6. *Kideek kartzelan sartu izanaren berri jakin zuenean, X jauna berehala hasi zen pentsatzen zer egin zezakeen kideak kartzelatik ateratzeko. Astebete geroago telebistan ikusi zuen nola gizon batek zenbait pertsona bahitzen zituen Parisen, eta tropa frantsesak guda gatazka batetik erretiratzeko eskaera egiten zuen. Orduan hasi zen X jauna aste batzuk geroago egingo zuen bahiketa prestatzen. Bahiketa honen prozesu motibazionalari dagokionez, zein faseri dagokio X jaunak Pariseko bahiketa telebistan ikusten dueneko unea?*
- Aktibazioa eta Norabidea.
 - Aurrea hartzea.

- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

7. *X jaunak egindako bahiketaren prozesu motibazionalari dagokionez, aurrea hartzearen fasea zer uneri dagokio?*

- a) X jaunak bere kideak askatzeko beharra hautematen duenean.
- b) X jaunak Pariseko bahiketa ikusten duenean telebistan.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

8. *X jaunak bazekien hainbat erakundetako bere kide batzuek diru kantitate handiak lortzen zituztela legez kontra. X jauna segituan konturatu zen berak ere lortu nahi zuela. Karguan urtebete zeramanean, haren lagun enpresari batek bisita egin zion, eta obra lehiaketetan legez kontrako komisio baten truke iruzurra egiteko formulak eman zizkion. X jaunak obra lehiaketetan iruzurra egiteko formula horiek ezagutu zituen momentua, portaera prozesu motibazionalaren zein fasetan dago?*

- a) Aktibazioa eta norabidea.
- b) Errealizazioa.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

12. kasua

Fiskalaren ustez, Isabel abeslaria handinahia da, eta diru eta botere gose dabil beti. Horregatik, fiskalak ondorioztatu du Julianek hirigintzako ustelkeria sare batetik ateratako dirua zuritzea proposatu zionean Isabeli, honek delituan kolaboratzea onartu zuela.

Galderak

1. *Zer esan dezakegu adibide honi buruz?*

- a) Isabellek delitua egin izana portaera motibatu bat dela, dirua lortzera bideratua.
- b) Prozesu motibazionalan, Julianek operazio jakin batzuen bidez Isabeli dirua irabaztea proposatzen dion momentuan «Aktibazioa eta norabidea» fasean egongo ginatekeela.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. Fiskalaren ustez, Isabelek Julianekiko harremana hasi zuen bazekielako Villarrobako alka-tea izanik erraztu egingo ziola diru eta botere beharra asetzen. Hori egia balitz, zer esan genezake?
- a) Isabelek harremanean hasteko motibazio intrintsekoa zuela, harreman horren bitartez nahi zuena lortu ahal izango zuelako.
 - b) Isabelek motibazio estrintsekoek bideratuta hasi zuela harremana.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

13. kasua

Duela hilabete batzuk, Udalak birziklapena hobetu eta ingurumena zaintzeko zabor bilketa berri bat ezarriko zuela iragarri zuen. Iragarpen horretan adierazten zen sistema hau erabiltzen zuten familiei zabor bilketaren zergan beherapen nabarmena egingo zitzaizela.

Galderak

1. *Iragarpen honekin, zer egin nahi du Udalak?*
 - a) Zabor bilketa berriaren erabilpena sustatu (pizgarri moduan).
 - b) Zabor bilketa berriaren erabilpena indartu (indargarri moduan).
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Estrategia hau ezarri aurretik, Udalak galdeketa batzuk egin zituen. Besteak beste, jende askori eskatu zitzaion eskala bat erabiliz erantzun zezala: 0 (EZER EZ) 100 (ASKO). Galderako bat zen: Zein neurritan eragiten du Udallerriaren ingurumenean, zure ustez, erabiltzen duzun hondakinen kudeaketak? Hiritarren % 95ek baino gehiagok erantzun zion galdera honi «5» baino puntuazio txikiagoarekin. Eraitza horrek, hondakinak kudeatzeko ohituren inguruan hiritarrok zer daukatela adierazten du?*
 - a) Ingurumenaren egoerari buruzko kontrol pertzepzio baxua dutela.
 - b) Autodeterminazio baxua dutela..
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Gorkak ez zuen orain baino lehen inoiz birziklatu. Egun batean, egunkarian irakurri zuen zabor bilketa sistema berriaren albistea. Egun horretatik aurrera, sukaldea jasotzen zuen bakoitzean, eta zaborra botatzen zuen bakoitzean, gogora etortzen zitzaion birziklatzen hasiko balitz zenbat aurreztu zezakeen. Baina, horretan pentsatzean, beste zerbait ere*

etortzen zitzaien burura: hondakin mota bakoitza (beira, papera...) poltsa ezberdinean banatzeak esfortzu eta neke handia eragingo ziola. Gorkak dirua sobera ez bazeukan ere, ez zen birziklatzen hasi zaborraren zergan dirua aurrezteko. Kasu honek zer irudikatzen du?

- a) Ezin hitz egin dugu prozesu motibazional batez, zeren eta iguripenik badagoen arren («birziklatzen badut aurreztuko dut», «birziklatzeak esfortzua eta nekea ekarriko dit»), ez dago helburu zehatz bat.
- b) Ezin hitz egin dugu prozesu motibazional batez, zeren ez dago portaera behagarri bat (kasu honetan, birziklatzea).
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Hilabete batzuk geroago, Gorkaren andregaiak berarekin bizitzera joan zen. Gorkak ez bezala, andregaiak urteak zeramatzan papera, beira eta kartoia banatzen zabor edukiontzi ezberdinetan. Inoiz hitz eginda zeuden birziklapenaren inguruan. Bakoitzak bere iritzia eusten zion eta eztabaidatzen bukatzen zuten. Gorkak ez zuen berriro eztabaidatu nahi gai honi buruz. Horregatik, andregaiak etxera etorri zitzaien egunetik beratik birziklatzen hasi zen. Kasu honetan, Gorka birziklatzera eraman zuen motibazioa zein zen?*

- a) Intrinsicoa, Gorkaren autodeterminazioa orain altua baita (birziklatzen du, nahi duelako).
- b) Intrinsicoa, Gorkak portaera horrekin bilatzen duena andregaiarekin harreman ona izatea baita.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. *Gorkaren andregaiak ere pentsatzen du birziklatzeak esfortzua eskatzen duela. Baina, hark ez bezala, urteak daramatza birziklatzen, ingurumenaren hondamena ekiditen lagun dezakeela uste baitu. Zer nolako da Gorkaren andregaiaren motibazioa kasu honetan?*

- a) Intrinsicoa da.
- b) Estrintsekoa da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

14. kasua

Gorkaren ama duela hiru urte zendu zen, eta aita duela urtebete. Gorkak beti izan zuen harreman ona biek. Haurtzaroko oso oroitzapen onak gordetzen ditu gurasoekiko. Aita hil zenetik, Gorka oso triste zegoen. Asteak daramatza pentsatzen faltan botatzen duela aitarekin bizi izan zuen aita-seme arteko harreman zoriontsua. Andregaiarekin hitz egiten

aritu da bikote moduan duten etorkizunaren inguruan: ea ezkonduko diren, haurrak izango dituzten ala ez... Eta elkarrizketa horretan, Gorkak haur bat izatea proposatu dio andregaiari.

Galdera

Gorka andregaiari proposamen hori egitera eraman duen prozesu motibazionala, nolakoa da?

- a) Gorkak aita- seme arteko harreman zoriontsua izateko duen beharra, eta harreman mota hori andregaiarekin seme bat izatean lortuko duenaren iguripena, aurrea hartzearen fase bati dagokio.
- b) Andregaiarekin etorkizunari buruz duen elkarrizketak aktibazioa eta norabidea faseari dagokio.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

15. kasua

Futbol talde aberats batek ez du titulurik lortu denboraldi osoan. Taldeko entrenatzailea kargutik bota dute. Elkarrizketa batean entrenatzaileak dio taldearen emaitza txarrak bi faktoreren ondorio direla. Alde batetik, prentsa. Bera atzerritarra delako gaizkinahia diotela eta, taldea ezegonkortu dutelako. Bestetik, jokalaria. Ez omen dute jasan entrenatzaile zorrotz baten gidaritzapean lan egitea, eta behar bezala lan egin gabe aritu dira entrenatzailea kaleratzea lortu arte. Entrenatzailea egozpen edo atribuzio kausal horiek egiten ari da; zein motatakoak dira?

- a) Kanpokoak.
- b) Barnekoak.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

16. kasua

«A» irakasleak landuko diren gaiak eta praktika taldeak askatasunez eratzten uzten du.

Galdera

1. *Irakasle honek zer sustatu nahi du?*

- a) Ikasleek ekintza praktikoetan autodeterminazioa izatea.

- b) Irakasgairako motibazio intrintsekoa.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

17. kasua

Nahiz eta Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa irakasgaia gustukoa ez izan, azken asteetan ordu asko eskaini diot ikasteari, hurrengo urteko beka ziurtatzeko gainditu nahi baitut.

Galdera

1. *Adibide honetan, nolako da ikasteko portaera bultzatzen duen motibazioa?*
 - a) Intrintsekoa da.
 - b) Estrintsekoa da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

18. kasua

Graduko 4. kurtsoko ikasle batek lau aldiz suspenditu du «Psikometria» irakasgaia. Lehenengo aldiz suspenditu ostean eskola partikularretan hasi zen. Bigarren aldiz suspenditu ostean eskola partikularreko akademiaz aldatu zen eta, gainera, tutoretza batzuetara agertu zen. Hirugarren aldiz suspenditu ostean eskola magistral guztietara joan zen eta bere kontu ikasi zuen akademia batera joan beharrean. Laugarren aldiz suspenditu ostean ikasteari utzi dio eta ez da eskola partikularretara joaten. Orain uste du ez duela irakasgaia gainditzen ez duelako gainditzeko gaitasunik.

Galdera

1. *Adibide honek adierazten duen atribuzio edo egozpen kausala, nolakoa da?*
 - a) Kanpokoa eta egonkorra.
 - b) Barnekoa eta ezegonkorra.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. *Zer izan liteke ikasleari gertatzen zaiona?*
 - a) Ikasitako babes-gabezia esperimintatzen ari dela; egoeraren ondorioz ikasi baitu edozein gauza eginda ere ez duela Psikometria gaindituko.

- b) Kontrol-pertzepzio baxua duela; ez baitu Psikometria motibazio inprimintseko batengatik ikasten, gustuko ez duen irakasgai bat etorkizunean ikasi beharra ekiditeko baizik.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

19. kasua

Haritz eta Ainara gero eta deserosoago daude beren etxean, eta denbora daramate etxez aldatzea pentsatzen. Bi haur izan dituzte azken 3 urte hauetan eta etxea txikia geratu zaie. Gainera, ez daude gustura bizilagunekin. Besteak beste, beheko bizilagunak gauez esnatzen ditu emaztearekin oihuka aritzen delako. Egun batean, lagun batekin hizketan, hara non esaten dien senide batek salgai jarriko duela erdigunean daukan pisu bat. Pisuaren ezaugarriei buruzko informazioa jaso ondoren, Haritzek eta Ainarak pisua erostea erabaki dute, eta erosteko eskaintza bat egin diote jabeari.

Galdera

1. *Eskaintza hau egitera eramaten dituen prozesu motibazionala, zein faseari dagokio?*
 - a) Lagunarekin izandako elkarrizketa «aktibazio» faseari dagokio.
 - b) Lagunarekin izandako elkarrizketa «aurre iragarpen» faseari dagokio.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Prozesu motibazionalan, zerk eramaten ditu pisuarengatiko eskaintza egitera?*
 - a) Gaur egun bizi diren etxean bizitzeak dituen alde desatseginak ekiditeko helburua dago.
 - b) Iguripen bat dago; lagunaren familiaren etxearenak bezalako ezaugarriak dituen pisura aldatzearekin, helburua beteko duten iguripena.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

20. kasua

Lorea eta Maria biolin jotzaileak dira eta 7 urteetatik ari dira kontserbatorioan ikasten. Irakasle guztien iritziz, biek ere antzeko ezaugarriak dituzte profesionalki musikan aritzeko eta arrakasta izateko. Loreak uste du bere adineko biolin jotzailerik onena dela herrialdean, eta Mariak, berriz, biolin jotzaile normaltzat dauka bere burua.

Galderak

1. *Adibide honen arabera, zer nolako gaitasun pertzepzioa dute?*
 - a) Loreak Mariak baino gaitasun pertzepzio handiagoa du.
 - b) Biek antzeko gaitasun pertzepzioa dute, adituek (irakasleek) uste baitute (hautematen dute) musikarako antzeko gaitasunak dituztela.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. *Csikzentmihalyi-k proposaturiko fluxuaren (edo flow) teoriari jarraiki egindako ikerketa enpiriko batzuen arabera, zer aurrean dezakegu Loreak musika ikasketan izango duen errendimenduari buruz?*
 - a) Mariarena baino handiagoa izango dela.
 - b) Mariaren berdina izango dela.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

21. kasua

Gau guztia ilara batean egon naiz, oso luze egin zaizkidan 6 ordu eman ditut nire talderik gogokoenaren kontzerturako sarrerak hartzeko.

Galderak

1. *Nolakoa da/dira ilaran zain egotearen ekintza martxan jartzen duen motibazioa edo motibazioak?*
 - a) Intrintsekoa da.
 - b) Estrintsekoa da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.
2. *Nolakoa da/dira nire talderik gogokoenaren kontzertura joateko ekintza martxan jartzen duen motibazioa edo motibazioak?*
 - a) Intrintsekoa da.
 - b) Estrintsekoa da.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

22. kasua

Josune Psikologia gustuko duen Psikologia ikasle bat da. Eskola guztietara joaten da, ordu asko ematen ditu ikasten eta liburu asko irakurtzen du aldiro. Baina, ez du irakasgai bat bera ere gainditzea lortu. Hala eta guztiz ere, Psikologia ikasteko gai dela uste du, eta egunen batean profesional handi bat izango dela.

Galderak

1. *Pertsona honek zer daukala adierazten du adibide honek?*

- a) Gaitasun urria.
- b) Gaitasun-pertzepzio altua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Pertsona honek zer besterik daukala adierazten du adibide honek?*

- a) Motibazio intrintseko handia.
- b) Motibazio estrintseko handia.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. *Hiru urte beranduago, Josunek Psikologiako ikasketak utzi ditu. Azterketa guztietara aurkeztu da eta lehen mailako lau irakasgai bakarrik gainditzea lortu du. Bere lagunek ikasketak zergatik utzi dituen galdetu diotenean, Josunek esan die unibertsitatean irakasten den Psikologia ez dela berari interesatzen zaion Psikologia eta, gainera, irakasleek ez daukatela ideiarik ere. Adibide honek adierazten duenez, zer nolako atribuzio edo egozpen kausalak egiten ditu Josunek?*

- a) Kanpoko eta egonkorra.
- b) Barnekoa eta ezegonkorra.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. *Egoera honek adierazten duenez, zer dauka Josunek psikologiako unibertsitate ikasketekiko?*

- a) Kontrol pertzepzio baxua.
- b) Gaitasun pertzepzio baxua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. *Egoera honek adierazten duenez, zer pairatzen du Josunek psikologiako unibertsitate ikasketekiko?*

- a) Ikasitako babes-gabezia.
- b) Ikasitako alferkeria.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

23. kasua

Azken partidua irabazi ostean, Orioko F.T. taldeko jokalaria bakoitzak 200 euroko sari bat jaso zuen klubaren eskutik, aurrez abisurik jaso gabe.

Galdera

Adibide honetan klubak zer eman zien jokalariei?

- a) Jokalariei indargarri bat eman zien.
- b) Jokalariei pizgarri bat eman zien.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

24. kasua

Patxi langabezian dago. Enpresa berean 30 urtez lan egin ondoren, duela 6 hilabete bota zuten. Haren etxean arazo ekonomikoak agertzen hasi dira, langabezia prestazioa berak zuen nomina baino txikiagoa baita. Nahiz eta lana bilatu nahi duela esaten duen, Patxik egunkarian lan eskaintzak bilatzeari utzi dio, jadanik ez du curriculumik bidaltzen eta Lan-biden izaten zituen elkarrizketetara joateari ere utzi egin dio.

Galdera

1. *Reeve-ren iguripena + balioaren teoriaren arabera, zein da aukera egokiena?*

- a) Oso balio altua, badakielako lana bilatzea izan litekeela bere arazoaren irtenbidea.
- b) Oso balio altua, badakielako lortzen oso zaila dela lana bilatzeko helburua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

25. kasua

Csikzentmihalyi-k proposaturiko fluxuaren (edo flow) teoriaren arabera, aste buruetan, orokorrean, aspertu egiten gara.

Galdera

1. *Zergatik?*

- a) Burutzen ditugun ekintzak ez direlako saritzen.
- b) Burutzen ditugun ekintzak gure gaitasun konpetentziarena baino erronka maila txikiagoa eskaintzen digutelako.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

26. kasua

J.P.Q. informatikan aditua den gazte aberats bat errudun gertatu zen banku suitzar batean izandako milioi askotako lapurreta batean. Krimenaren arrazoia izan zen gazteak bankuaren segurtasun sistema eraginkorra ez zela frogatu nahi zuela. J.P.Q.-k delitua abenduaren 31ko 23:59etan egitea erabaki zuen. Jabetu zen momentu horretan bankuak, eguneratze batzuk egiteko, segurtasun sistema desaktibatu egiten zuela.

Galdera

1. *Adibide honek adierazten duen lapurretan, J.P.Q.-k data horretan bankuak ziurtasun sistema desaktibatu egiten duela jabetzen den unea zer faseri dagokio prozesu motibazio-nalean?*

- a) Aktibazioa eta norabidea.
- b) Aurrea hartzea.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

27. kasua

Psikologia ikasteko arrazoirik garrantzitsuena nire aitaren nahiei aurre egitea izan zen. Berak nik tradizio familiarrari jarraitu eta Medikuntza ikastea nahi zuen.

Galdera

1. Adibide honek adierazten duen motibazioa, nolakoa da?

- a) Intrinsicoa da.
- b) Estrinsicoa da.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

28. kasua

Ander futbola gustuko duen 10 urteko mutiko bat da. Egunero, jolas garaian eta ikastolatik ateratzean futboleko jolastea du gustuko. Egia esan, ez du oso ongi jolasten baina berak ona dela pentsatzen du eta egunen batean futbolari ona izango dela pentsatzen du.

Galderak

1. Adibide honek zer adierazten du?

- a) Motibazio intrinsekua eta auto-gaitasun urria.
- b) Motibazio intrinsekua eta gaitasun urria.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. Anderri futbolari izateko ametsa lortzen lagundu nahi dio aitak. Futbol eskola batera eramaten du, eta aholkuak ematen dizkio nola jolastu behar duen esanez. Anderri ez zaio gehiegi gustatzen, zeren aita nekagarri jartzen dela eta, gainera, futbolaz asko ez dakiela iruditzen baitaio. Anderrek, futbol eskolara joateko, lehendabizi etxeko lanak egin behar ditu; beraz, orain ezin du ikastolatik ateratzean bere lagunekin futboleko jolastu. Egoera honetan zer da litekeena?

- a) Anderren autodeterminazio pertzepzioa jaistea.
- b) Anderrek ikasitako babesgabezia pairatzea.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

3. Urte batzuk beranduago, Anderrek Kimikako ikasketak utzi ditu. 23 urte ditu. Lehenengo eta bigarren ikasturteetako irakasgaiak gaintu gabe utzi ondoren, aurten ez da matrikulatu. Andregaiak galdetzen dionean zergatik ez den aurten matrikulatu, berak esaten

dio denbora galtzen ari zela sentitzen zuela, eta ezinezkoa ikusten duela ikasketak amaitzea. Adibide honetan adierazten diren Anderren atribuzioak edo egozpenak nolakoak dira?

- a) Kanpokoak eta egonkorrak.
- b) Zehatzak eta ezegonkorrak.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

4. Adibide honetan adierazten enez, Anderrek zer du?

- a) Kontrol pertzepzio baxua.
- b) Gaitasun pertzepzio baxua.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

5. Adibide honetan adierazten enez, zer besterik du Anderrek?

- a) Ikasitako babes-gabezia.
- b) Ikasitako alferkeria.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

29. kasua

Anek izena eman du pianoko eskoletarako. Galdetu diogu ea zer iruditzen zaizkion, eta esan digu oso oinarrizkoak direla bere mailarako.

Galdera

Adibide honetan, zer ikusten da?

- a) Klaseek erronka maila egokia dutela Ane bere kideen artean nabarmentzeko.
- b) Anek gauzak egiteko duen erraztasunari esker, antsietaterik gabe bizitzen eta gozaten ditu bere jarduerak eta, horrela, fluxu esperientzia nabaritzen du.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

30. kasua

Irakasleak esan dit lana hobetzen badut azterketaz libra naitekeela. Adibide honetan, irakaslea zer egiten ari da?

Galdera

- a) Ikaslea indartzen ari da.
- b) Ikasleari pizgarri bat ematen ari zaio.
- c) A eta b zuzenak dira.
- d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

31. kasua

X andreak irainak eta laidoak (vejación) jaso zituen sarritan bere bikotekidearengandik. 2 urte eta gero, Galiziara egin zuen bidaia bat bere lehengusinarekin eta haren senarrarekin eta haien arteko harremana ikusita, bere bikotekideak azaltzen zion interes falta hauteman zuen. X andrea saiatu zen bikotekideari interes falta horrek sentiarazten zion haserrea eta tristura azaltzen. Horrek eztabaida piztu zuen, eta X andrearen bikotekideak iraindu eta laidotu egin zuen berriro. Eztabaidan, X andrearen bikotekideak kokoteraino zegoela esan zion, eta harremana hautsiko zuela. X andrea aukeraz baliatu zen eta harremana bertan behera utziko zuena bera izango zela bota zion aurpegira.

Galdera

1. *Gertatukoaren arabera, prozesu motibazionalean Galiziara egindako bidaia, zein faseri dagokio?*
 - a) Aktibazioa eta norabidea.
 - b) Aurrea hartzea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

2. *Gertatukoaren arabera, prozesu motibazionalean Galiziako bidaiatik bueltan bikotekidearekin izan duen eztabaida, zein faseri dagokio?*
 - a) Aktibazioa eta norabidea.
 - b) Aurrea hartzea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
 - d) A, b eta c EZ dira zuzenak.

Erreferentziak

- Csikszentmihalyi, I. S. (Ed.). (1992). *Optimal experience: Psychological studies of flow in consciousness*. Cambridge University Press.
- Broadbent, D.E. (1954). The role of auditory localization in attention and memory span. *Journal of Experimental Psychology*, 47, 191-196.
- Mackintosh, N.J. (1975). A theory of attention: Variations in the associability of stimuli with reinforcement. *Psychological Review*, 82, 276-298.
- Treisman, A. M., & Gelade, G. (1980). A feature-integration theory of attention. *Cognitive psychology*, 12, 97-136.
- Weber, E.H. (1834). *De pulsu, resorptione, auditu eta tactu. Annotationes anatomicae et psychologicae*. Leipzig: Loeler (Trans. H.E. Ross and D. J. Murray (1978). *The sense of touch*. London: Academic Press).